

DESKONTUAK

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN

DESKONTUAK

ARROPADENDAK



SAIOA BOUTIQUE
 Karrika Nagusia, 7
DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 451 704
 ▶ %10 merkeago

J.J. PIKABEA

Ameztiarra karrika, 7
DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 451 670
 ▶ %10 galtza marka batzuetan



HAURENDAKO JANTZIDENDA
 Elizag bela, 4
DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 450 881
 ▶ %10 merkeago
 2.500 ptatik goiti

ARROPA DENDA



Jaime Urrutia, 24
ELIZONDO
 Tfnoa.: 948 580 312
 ▶ %10 merkeago
 5.000 ptatik goiti



TTIPI TXARTELAekin
 beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA


948 63 11 88

HAMABORTZALDI HONETAKO SARIA:

2 afari edo bazkari
TTIPI TXARTELA dutenendako

Igantzik LA VILLA jatetxean

Arrankietan espezializatuak
 Haragietan; azpizuna piperbeltzarekin
 Postreetan; kanutiloak



Igantzik plaza

948 637 290

JATETXEA
LA VILLA

ELEKTROGAILUAK

MARIXUS

ELEKTROGAILUAK
 ENETERREAGA
 anai-arrebak
 Zarandia, 3
LESAKA
 Tfnoa.: 948 637 070
 ▶ %5 merkeago gama txuri-marroian.

ALZURI

ELEKTROGAILUAK
 Bittiria 41
LESAKA
 Tfnoa.: 948 637 531
 ▶ %5 elektrogailuetan
 %25 elektrizitate materialetan

LENTZERIAK

Deñe

lentzeria
 Beheko plaza
LESAKA
 Tfnoa.: 948 627 514
 ▶ %10 lentzerian

Maitelentzeria

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
 Tfnoa.: 948 452 436
 ▶ %10 5.000 ptako erosketatik goiti

2 lagunendako bazkari edo afaria

zozketatuko da **TTIPI TXARTELA** dutenen artean.

Zozketan parte hartzeko, deitu irailaren 14a baino lehen 948 63 11 88ra.



Berako Udaleko hautetsiek eta langileek Jon Abril lankideari elkartasuna agertzeko prentsaurrekoa eskaini zuten

Argazkia: ASIER

EDITORIALA

Kazetari lana egiteagatik delitua leporatu diote

Bost milioi pezetako bermea (200.000 libera) aurkeztu behar izan du libre gelditzeko

Abuztuaren 17an Jon Abril Madrilgo Entzutegi Nazionalaren atean zegoen bertze hainbat kazetari bezala. Bideo kamara batekin Entzutegitik ateratzen ari zen auto baten irudiak grabatu zituen (denetara 6 segundu).

Poliziek, ordea, euren aurpegien lehen planoak hartzen ari zela susmatu, eta identifikatzeko eskatu bidenabar, Jon Entzutegiaren barnera eraman zuten bideo zinta kendu eta gertaeraren berri epaileari emanaz. Juan del Olmo epaileak, bere aldetik, lau eguneko epean bortz milioi pezetako bermea aurkezteko eskatu zion libre gelditzearen truke. "Argitu behar dut ez nindutela detenitu -azpimarratu digu Jonék-. Bideo zinta kendu eta horren akta sinatzera sartzeko es-

katu zidaten. Ordu terdi beranduago bideo kamarak memoriarik ba ote zuen galdetu zidaten. Egun batzuk beranduago, nere borondatez agertu nintzen epailearengana deklaratzera eta, bidenabar, kazetari titulua eta TTIPI-TTAPA eta Euskaldunon

Egunkariko Prentsa Agiriak aurkeztera".

BIDEOAN EZ DAGO POLIZIEN AURPEGIRIK

Jonék hartutako irudietan "auto baten irudia bertzerik ez da ageri, eta ez polizien aurpegiak hainbat hedabidetan agertu den bezala". Hala ere, epailearen agiriak dioenez, "irudi horiekin informatzea baino beste helburu batzuk zituen kazetariak" eta horren arabera, ETaren laguntzaile izan daitekeela ondorioztatzen du.

DATUAK

- ❖ *Jon ez da detenitua egon, hainbat komunikabidetan bertzerik agertu bada ere.*
- ❖ *Grabatutako irudietan ez da polizi eta kazetarien aurpegirik ageri.*
- ❖ *Epaileak erabaki duenez, muga ondoan bizitzeak normala dena baino fidantza haundiagoa jartzea justifikatzen du.*

Ez buru eta ez buztan!

Jon Abril, gaztea bada ere, aski ezaguna da hainbat toki eta jende artean. Bere jarduera eta jokera, nonahi laguntzea eta kolaboratzea izaten da. Horren testigu gara TTIPI-TTAPA, Euskaldunon Egunkaria, EKB, Argia, Lotsagabe, Bortzirietako Mankomunidadea, Berako Kultur ekitaldiak, etabar. Eta, gehienetan, borondate hutsez, musutruk. Jon kazetaria da eta Madrilera berriak grabatzera joan zen, Berako Eneko Zestau eta lehengusaren inguruko berriak jasotzera. Bertze hainbatetan egin duen gauza egitera. Eta poliziak epaileari salatu eta honek, nonbait, Jonen gaizki-egina ikusi, eta bortz milioiko fidantza ordaintzera behartu du, libre izatekotan.

Eta zergatik? Zein da gertakari honen zergatia? Zeren eta Jonék egin duena, edo eta, hobeki erranez, egiten hasi zena (sei segunduko grabazioa bertzerik ez zuen hartu) egunero kazetari ugarik egiten du. Eta kazetariaren lana da. Zer da, bada, kazetariaren egitekoa berriak biltzea ez bada, eta, ahal den neurrian, bere inguru eta xehetasunekin?.

Kazetari karneta duen Jon Abrili, kazetariari dagoen lanean aritzeagatik delitua leporatu diote eta ez nolana horkoa: talde armatuarekin kolaboratzea. Nola? Zergatik? Horiek dira jende guztiaren galderak. Zertan gelditzen da adierazpen askatasuna? Kendu ote dute berriak emateko eta berriak hartzeko eskubidea?

Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoaren argitan ulertzen ahal izanen da, behar bada. Egoera hori dela-eta euskara eta euskararen inguruko gaiztakeriaz koloreztatzen ari baitira, egunetik-egunera gero eta gehiago.

Hala ere, zentzumenak aginduko duela espero dugu, eta Epaitegiko afera hori berehala deusezkan gelditzea.

Ttapi-Ttapa Fundazioa



BIDASOAKO III. ZINEMALDIA

37 filme labur Urrezko Iratzearen bila

Irabazleak eramane duen milioi pezeta lortu nahian, 53 filme aurkeztu ziren hasiera batean. Beraz, epaimahaiak hautaketa prozesu bat egin behar izan du batzuk baztertzeko. Zenbait filme alde batera uztea gogorra izan baldin bada ere, zinemaldiaren osasun ona adierazten du partehartzaileen ugaritasunak. Antolatzaileek diotenez, gainera, urtetik urtera hobea omen da filmeen kalitatea. Aurten euskarazko filmerik ikusteko aukerarik ez da izanen, aurkeztu ziren bakanak zerrendatik kanpo gelditu baitira. Partehartzaileen artean Unai Martinez leitzarrak produzitu duen "El vestido" laburmetraia dago.

TESTUA: **ASIER GOGORTZA**

Iraila hilabete seinatua da inguru honetako zinezaleendako, azken hiru urteotan bai bederen. Bertizko Partzuergoak Nafarroako Gobernuaren eta zenbait Udalen laguntzarekin antolatzen duen filme laburren zinemaldia finkatzen ari da pixkan-pixkan. Aurten inoiz baino zinegile gehiagok aurkeztu ditu bere lanak lehiaketara, denetara 53 filme aurkeztu baitziren epearen barrenean, eta bertze hamarrek epez kanpo dei egin

duela adierazi digute antolatzaileek.

Beti bezala, zinearekin lotura duen erakusketa bat ere prestatu dute Bertizkoek: 'Zinea Bidasoa Bazterrean 1900-2000' izenekoa da aurtengoa, eta mende guzian zehar erreka honetan izan diren zinemen historia biltzen da irudi eta testuen bitartez. Bera-ko Kultur Etxean eta Hondarribian egonen da ikusgai irailaren 17a bitarte. Horrez gainera, Charles Chaplin "Charlot"en "La Quimera del Oro" ere eskainiko dute irailaren

«Hasieran 53 filme aurkeztu ziren, eta ez da aisa izan batzuk baztertzea»



Aurten 3. edizioa da. Zinemaldia finkatzen eta izena hartzen ari da?

Bai. Aurten partehartzean igoe-
ra handia egon-
du da, eta mun-
du horretan da-
bilen jendeak

gero eta gehiago ezagutzen du. Iaz 38
filme aurkeztu ziren eta aurten 53.

**Zeintzu dira igoe-
ra horren arrazo-
iak zure ustez?**

Gehienbat urtetik urtera produktora gehi-
ago ezagutzen saiatzen garela. Gero ere
beraien artean ahotsa zabaltzen dutela
uste dut, badakite lehiaketa honek sari
garrantzitsuak dituela, eta orduan gehi-
ago animatzen dira.

**Partehartzaileen artean zenbat dira
Euskal Herrikoak?**

Hasieran baziren gehiago, baina aurre-
selekzioa egin ondotik 5 gelditu dira.

Euskarazkorik ez dago aurten, ezta?

Ez, bi zeuden eta epaimahaiak biak ken-
tzea erabaki du. Kontua da filme aunitz
zirela eta ez zen aisa batzuk baztertzea.
Orain aisagoa izanen da aukeratuen ar-
tean sariak banatzea lehen aurreselek-
zioa egitea baino.

**Aitzineko edizioetan huts egin duena
publikoa izan da, ez duzu uste?**

Bai, guk filmeen partehartzearekin ara-
zorik ez dugu eta gerora begira ere ez
dugu izanen. Arazoa ikusle kopurua gehi-
tzea izanen da. Nik uste iaz lehen urte-
an baino jende gehiago bildu zela. Segu-
raski hurbildu zen jendea gustatu eta
hurrengoan lagunak animatu zituzten.

**Erraten ahal da, halere, filme labur-
rak ikusteko ohitura eskasa dagoela
gaur egun, ezta?**

Bai, zinean ez dira ikusten eta telebista-
n ere gutti, beraz ohitura falta da gure ara-
zoetako bat. Filme labur bat ikusi ez due-
nak pentsatzen du anuntzio bat dela edo
ez duela argumenturik... baina hori ez
da horrela, gehienetan bederen.

Jendeari erran behar zaio filme hauek
bertzeak bezalakoak direla, soilik motza-
goak. Baina horrek aukera gehiago ematen
dizu, 2 ordutan 8-9 pelikula ikusten
ahal dituzulako. Bat beharbada ez zaizu
gustatuko, baina badakizu handik 10
minutura bertze bat izanen duzula. Nahiko
dinamikoa izaten da eta ez zara aspertzen,
2 ordutan gai pila bat eta gisa desberdi-
netako filmeak ikusten ahal direlako.

**Orain arte Urrezko Iratzea eraman
dutenek inguru honetan grabatzeko
konpromezua hartu zuten. Zerbait
egin dute?**

Oraindik ez, baina lehen urtean iraba-
zi zuenak, Javier Rebollok, Bertizko par-
kean zerbait grabatzeko intentzioa ba-
du. Aurten espero dugu irabazleekin ego-
tea eta beren proiektuetaz solastea.

**Sari banaketaren egunean Charlot-i
omenaldi ttiki bat egingen diozue.**

Bai, "La Quimera del Oro" filme mutua
botako dugu, orain urte aunitz egiten zen
bezala, hau da, pianoa zuzenean aditze-
ko aukerarekin.

16an, sari banaketaren egune-
an, filme hori sortu zenetik 75
urte betetzen direla probetuz.
Adin bateko zinezaleak hun-
kitu eta gazteak harrizko di-
tuen modu batean egingen da
gainera, piano musika zuzene-
an joko baitute filmearekin ba-
tera.

Ttikienekin ere ez dira
atzendu zinemaldiaren antola-
tzaileak. Eurentzat "Rudy txe-
rria" filmea proiektatuko du-
te Beran eta Donezteben.

Zine produktore
leitzar bat

Zinemaldian parte har-
tuko duten produktora
gehienak Madril,
Bartzelona, Sevilla
eta Bilbo bezala-
ko hiri handi-
etakoak dira, bai-
nan guzi hoiekin
Leitzako pro-
duktora bat ari-
ko da lehian.
Izan ere, Unai
Martinez eta Idoia
Urbiolaren izene-
an ageri da "El Ves-
tido" filme musikala-

ren produkzio lana, eta Leitzan
dute helbide fiskala. «Leitza-
rrek toki guztietan egon behar
baitugu» erran digu irriz Unai
Martinezek, baina gero serio
jarri eta filme labur honen his-
toria kontatu digu: «Idoia
Urbiola eta Asier Andueza
iruindarrekin egin genuen
proiektua. Iruñean errodatu
genuen 6 egunez, eta monta-
jea berriz Donostian eta
Lasarten». Bertzeak bertze
Elena Irureta eta Anabel
Arraiza aktoreek lan egin du-
te eurekin.

H o n a

Egunak	Tokia	Ordua
5-8	Doneztebe Zinema	19:30
11-14	Bera Kultur Etxea	19:30
13-15	Hondarribia Zuloaga Etxea	19:00
11-14	Hendaia Cinéma des Varietés	21:00

hemen Unai egin digun sinop-
sia: «Bere bizitzaz nekaturik
dagoen emakume heldu baten
istorioa da. Bapatean soineko
bati esker argia ikusten du eta
bide horretatik segituz musi-
ka, kolorea eta dantzariak ikus-
ten hasten da, zoriontasuna
lortzeko bide bat, alegia».

Gaztelaz egiteko eraba-
kia zergatik hartu zuten galde-
tzen diogularik ez du denbora
aunitz hartzen erantzuteko:
«argi eta garbi dago, euska-
raz eginez gero zinemaldietan
sartzeko aukera guttiago da-
go, eta guk nahi genituen ak-
tooretako batzuek ez zekiten eus-
karaz. Gainera Nafarroako
Gobernuari eskatu behar geni-
on subentzioa, eta ez ginen
arriskatu euskaraz egitera».

Dirulaguntza eta
sarien menpe
Dirulaguntza lortu arren,
nahiko larri ibili dira ha-
lere diru kontuekin, aront
garestia baita zine forma-
tuan errodatzea. Bere erra-
netan, aunitz nahasi egi-
ten omen dira bideo eta zine
formatuak, baina ez dute ze-

rikusirik: «Bata negatiboan
egiten da eta bestea digitale-
an. Bideozinta batek 3.000 pe-
zeta balio du eta 3 minutuko
negatibo lata batek 60.000.
Gero laborategia... Grabatze-
ko era ere guztiz desberdina
da».

Sosa da filme laburren egi-
leek parean harrapatzen duten
oztopo handiena. «Dirua edu-
kiz gero nahi dituzun aktore-
ak ekar ditzakezu, beraiek or-
daindu... teknikari eta mate-
rial onak ekarri» zoritxarrez,
ez da hori leitzar honen eta be-
re lagun kasua «guk diru ho-
ri ez genuenez Elena Irureta
lagun baten etxean sartu genu-
en, ogitartekoak bazkaltzen...
azpiegitura falta handia genu-
en» aipatzen du. Hortaz, dago-
enarekin moldatu behar, hori
da filme laburrak egiten dituz-
tenen filosofia. «Beharko
izan», dio Unai ekinetsipenez.

Aste honetan hemen abia-
tu dena bezalako zinemaldie-
tan lortzen dituzten sariak, be-
raz, zorrak kitatu eta proiektu
berriak prestatzeko erabiltzen
dituzte. Euren artean kompeten-
tzia handia izatea ez da harritze-

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Nerea Mitxeltorena, Joseba Olagarai, Aitor Arozeta, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu.
Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre E karte...
Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria ... 160 Libera
Europa ... 4.000 Pta.
Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Jon Abrileri 5 milioiko zigorra bere lana egiteagatik

“Badaezpada ere”



Lander SANTAMARIA
Elizondo

Jon Abril Olaetxea lagunarekin Entzutegi Nazionalaren atean gertatu dena

bitxia da, eta onartezina: Komunikabide bateko ordezkari baten kontrako prozesu judizial bat irekitzea soilik bere lan informatiboa egiteagatik. Bertze behin ere, adierazpen askatasunari muga jarri zaio, baina okerragoa da teoriarik bederen honen defendatzaile nagusi izan beharko lukeen egin izana: epaileak, alegia.

Hemen lurretik bota dituzte sozialki eta judizialki onartutako arau batzuk, mundu guzira errugabe dela kontrakoa frogatzen ez den bitartean adibidez, baita bizilekua ezin dela behinere astungarri bat izan, eta batez ere, delitu bat ez da delitu izanen gauzatzen den arte. Herritar bat ustez egiten ahal duenagatik epaitzea (irudiak “...erabiliak izan litezke”) onartezina da ikuspuntu guzietatik.

1980an, Entzutegiko epailearen aurrean bere borondatez aurkeztu zen Elizondoko gazte bat lagundu genuen Madrilerara. Ricardo Varón Cobos epaileak (ez dut sekula ahanztziko), gaztearen kontrako atzemate agindurik ez zegoen arren, “badaezpada ere” Carabanchelera bidaltzea erabaki zuen. Kartzelako zuzendariak, kriterio hobegoarekin, aske utzi zuen handik bi egunetara.

Non ote daude orain adierazpen askatasunaren alde oihukatzen dutenak



Irene ARRIZURIETA
Euskaldunon Egunkaria

Ni neu ere izan nintkeen Madrilerara berria kubritzera joandakoa. Nere

ustez argi frogatu da komunikabide espainolek euskal komunikabideetan lan egiten dugunak kriminalizatu egiten gaituztela. Guk gauza bera eginen bagenu honezkero altxatu zitzaigun Gobernua, inon direnak eta ez direnak...

Nik orain galdetzen dut non ote dauden beren buruari demokrata deitzen dioten horiek eta adierazpen askatasunaren alde oihukatzen dutenak. Prentsa Elkarteko jendea, beti adierazpen askatasuna aldarrikatzen ari dena. Baina kasu honetan ez da politikoki zuzena Joni elkartasuna adieraztea eta ikusi dugu nola jokatu duten komunikabide gehienek. Gu komunikabide estatistengan ari gara iritzi eske, eta erantzuna “aski zuten han ez egotea” izan da. Gerta daiteke kasu hau aurrekari bat izatea. Izan ere, epaileak Joni leporatu diona euskal komunikabide batean aritzeagatik izan da, eta kitto. Euskal gatazkaren barnean kriminalizatzen dituzte politikoak, kriminalizatzen dituzte gazteak... eta orain berriz kazetariak. Hurrengoa, auskalo!

Beldurtzeko modukoa da Joneri pasatu zaiona




Zarbo IBARROLA
Doneztebe

Ohituak egon beharko genuke, baina ez. Lehenik, ez da errespetatu le-

gearen aitzinean denak berdinak garela dioen oinarritzko printzipioa. Han kazetari aunitz zegoen eta Jonen hartutako irudiak milaka aldiz hartu eta emititu dituzte lehenagotik. Baina berarengana joan dira bakarrik. Gainera, fiantzia hau neurritz kanpoko da beratarra izateagatik eta mugaren ondoan bizitzeagatik. Berriz ere berdintasun printzipio hori zapatu egiten da. Baina horrez gain, kasu honetan, errugabetasun-presuntzioa xehetu egin dute, egin ez dituen eta sikiera egon ez diren delitu batzuk leporatzen baitizkiote.

Baina beldur gehien ematen duena egunero Demokrazia eta Konstituzioa hitzak ahotan erabiltzen dituzten arduradun politikoaren ixiltasuna da. Euren dira beren buruei demokrata deitzen dietenak, beren partiduak dira demokrata bakarrak, euren dira demokrata nor den eta nor ez den erabakitzeko eskubidea dutenak. Eta kolpe batetik “beren” sistemaren bi zutabe handienak birrintzen dizkieten arren euren ixil-ixilik. Eta makurrena hurrengoa zein izanen den pentsatzea da. Aupa Jon.



ttopi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Baztan-Bidasoako kazetarion elkartasuna Jon Abril lankidearekin Beheitian sinatzen dugunok, pertsonalki edo Baztan, Malerreka eta Bortzietako herri komunikabideetako ordezkari gisara, Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epaile jaunak Jon Abril Olaetxea lankide eta lagunari egotzitako inputazioen inguruan, zera dugu adierazteko:

a) Auzitegi Nazionalako epaileak gure lankidearen aurka hartutako erabakia oso-osorik errefusatu dena eta ez dugu onartzen, bakar-bakarrik bere informazio lana betetzen ari baitzen, preziski estatuko eta autonomietako telebista kanal guzietan behin eta berriz ikusi ditugun irudiak biltzen.

b) Kasu honen inguruan epaileak egindako hausnarketa ere erabat errefusatu dena, guziz dohainekoak direlako. Inputazioak justifi-

katu gabekoak eta esplikatu ezin dira.

c) Era berean, eskatutako fidantza ere ez dugu onartzen, gure ustez guziz neurri gabeko eskubide askearen aurkako bortxa garbia delako. Egiten zaizkion inputazioak kentzea eta gure lankide eta lagunaren aurka egin nahi diren epai ekintza guziaz artxibatzea eskatzen dugu.

d) Epaile jaunak Jon Abril Olaetxearen nortasunean eta gizatasunean sakontzeko inolako intentziorik ez erakutsi izana penatu gaituela adierazteko aprobetxatu dugu. Honela, pertsona on bat eta ederki frogatutako zintzotasuna duen profesionala ezagutzeko aukera ederra galdu, herri komunikabideetiki eta xume bezain errespetagarri batean lan egiten duen arren.

BAZTAN-BIDASOAKO HERRI KOMUNIKABIDEETAKO LANGILEAK

Jon Abril, animo! Ttipi-Ttapako kazetari eskalduna izateagatik enpatelatu haute Madrid alde horretan. Harrituta omen hago. Harrituta? Justizia itsua duk. (Berako plazako margoetan ere begiak itsututa ageri dela ez al hintzen erreparatu). Jozak tronpeta, Sam... kukaña gainetik pestatan josten huen bezala. Eta segi aurrera.

ANTTON ERKIZIA
(LEITZA)



Euskal Telebistako LAB: Dagoeneko ezergatik harritzen ez gaituen Espainiak Entzutegi Nazionalak Ttipi-Ttapa Telebistako kazetari-langile den Jon Abril irudi batzuk grabatzeagatik zigortu du. Euskal Telebistako LABeko sail sindikalak ho-

nako hau adierazi nahi du: 1. Fundamentu demokratikorik gabe zigortua suertatu den Jon Abril kideari gure elkartasuna helarazi nahi diogula.

2. Euskal kazetari-gintzarako lan-baldintzek zartako izugarria pairatu dutela, Del Olmo epaile-errealizadore-editorearen autoaren arbera hemendik aurrera haubtat berriren segimendua, grabatzen den unetik argitaratu arte, «banda armatuarekin kolaboratzeko» beldur handiz egin beharko delako.

3. Euskal Herriari Adierazpen Askatasuna eta Prentsa Askatasunaren alde ere jarraituko dugula.

EUSKAL TELEBISTAKO LAB



BAIETZ Fundazioa: BAIETZ Fundazioak Juan del Olmo epailearen erabakia ankerra salatzeaz gain, Jon Abril Ttipi-ttapa telebistako kazetariarekin elkartasuna ere adierazi nahi du. Bide batez, Euskal Herriari Adierazpen eta Prentsa Askatasunaren aldeko kon-

promisua sendotu eta borrokatzeko dela luzatzen du BAIETZek.

BAIETZ KOMUNIKAZIOARAKO
EUSKAL FUNDAZIOA




Arretzekobordakoak Amerikatik Sunbillara Sunbillara etorriko zaizkigu Joxantonio -Xakito- Joxemari eta Patxikito, Aretzekobordakoak, datorren urrian. Familia ikustera etorriko dira, nola ez? bainan, Pareta-zaharrera ere joan nahi dute. Usoak "ikustera" joaten omen dira euren lagunak eta Coloradotik datozenak, usok ez, lagunak ikusi eta herriren berri ikasi, musera jostatu eta mendiz-mendi gure herriak mehatu... Bai, zuen zai gaude! Binan kontutan izan, usoak, guk ere ikusi nahi ditugula! Musu bat baikoitzari eta...laister arte!

AINTZANE ZUGARRAMURDI




Udazken eta negurako kolezio berriak

Parrokia 11 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 01 12



Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

☎ 948630155
BERA



Eskolan lasteko behar duzun txanetala



APARAN, S. A.
BIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



BERako UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

U.C.14.2ko Xehetasun azterlana hasiera batez onartzea

2000ko abuztuaren 17an Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1) JOSE M^a IRAZOQUI IRIARTEK eta JOSE A. PAGOLA IGOAK aurkeztutako U.C.14.2ko Xehetasun Azterlana hasiera batez onestea.
- 2) Aipatu Xehetasun Azterlana, Iragarki taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietarikoa batean alde zurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jarzea.
- 3) Xehetasun Azterlan hau Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura eta Espainiako Iparraldeko Ur-konfederaziora bidaltzea.
- 4) Akordio hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2000.08.29
Alkatea, J. Goia Etxeberria

✍️ Josu BEAUMONT *Abokatua*

Auzitegi Nazionala: Nor da errudun?

Del Olmo epaileak Jon Abril auziperatu du, ustez, talde armatuari laguntza emateagatik (10 urterainoko espetxe zigorra dagokio delitu honi). Entzutegi Nazionalaren atarian polizien imajinak grabatzea ei da auziperatzearen arrazoia. Argi dago estatuko kate guzietako telediariei esker Entzutegi Nazionalaren aurrean bizi den herri batentzat imajin hoiek grabatzea delitu izatea oso zaila suertatzen dela. Entzutegi Nazionala ez da justizia administratzeko auzitegia, Entzutegi Nazionala auzitegi berezia da, frankismoaren Tribunal de Orden Público-aren oinordeko, euskal independentismoa borrokatzea eta suntsitzea helburu nagusi dituen. Gaur egun konplejo mediatiko-politiko itzel baten muina da, estatua-aren beste besoa, espainiarren erara herri honen pazifikaziorako erabiliena. Jon euskalduna izan ez balitz, botereak kontrolatzen ez duen medio baretan lan egin izan ez balu, gaur ez ginen berataz ariko. Baina euskaldun izateak. Entzutegi Nazionalaren aurrean Jon-ek bere errugabetasuna frogatzera behartzen du: kamara daraman edozein kazetari espainol goitik beherako kazetaria da, demokraziaren eta adierazpen askatasunaren babesle eta bermatzailea. Aldiz, estatuko medioetan lan egiten ez duen kazetari euskalduna erabat susmagarria da, erditik kendu beharrekoa (galde diezaietela, bestela, Egindeko kazetariei).

Baina hau, nola ote da

posible? Hona errezeta bixi honen nondik norakoak: Ikutu legala eman eta eskandalo publikoa sortu ondoren, estatuko medio ororen laguntzaz egiatik erabat urruti dauden bertsioak lau haizetara zabaldu. Inkisizioaren eskua luzea da eta frogarik gabe akusatuko du. Eta auziperatuari egokituko zaio ondoren bere errugabetasuna frogatzea, ETA-ri laguntza emateko inongo asmorik ez zuela frogatzea. Eta hau frogatzea ezinezkoa denez, borobila ixten zaigu eta

Edozein kazetari espainol goitik beherako kazetaria da, demokrazia eta adierazpen askatasunaren babesle. Aldiz, estatuko medioetan lan egiten ez duen kazetari euskalduna susmagarria da.

horra Entzutegi Nazionalaren arrakasta berria. Muntai honek legezko ikutua behar duenez, zerga iraultzaile berezia ezartzen zaio euskaldunari: bost milioitako fidantza. Zerga hau ezartzeko arrazoi nagusia mugatik gertu bizitzea da, nahiz eta argudio zoro honekin guztiok legediaren aurrean berdinak garenaren esaldia hankaz gora jarri. Beraz, honen aurrean egiten ahal dugun irakurketa honako hau litzateke: Gero ta argi dago Entzutegi Nazionalaren papeira, eta ondorioz, tribunal hau gure herrian bizi dugun gatazka politikoaren konponbiderako zein euskal herri-tarron askatasunaren defentsarako oztopo garbia dela.

✍️ Eugenio JACA *Leitzako Aurrera pilota taldekoa*

Nafarroako Pilota Federazioa bunker bat da gaur egun



Orain arte Nafarroako Pilota Federazioa arront modu itxian lan egin du, hori begigistakoa zen denontzat. Bizpahiru klubek babesa besterik ez dute izan, zehazki Lizarra, Oberena eta besteren bat. Lizentziak eta ordezkariak banatzeko modurengatik, klub hauek Nafarroako bertse guziek batera baino ordezkari bat handiagoa dute Federazioan. Teorian Federazioa oinarritzeko kirola babestu edo lagundu beharko luke, hau da, pilotari txiki-kin ari garen taldeak bultzatu, baina ez da horrelakorik gertatzen. Guk Leitzan ditugun 80-90 gaztetxoekin, Federazioan ez dugu inolako indarririk. Gauza beretsua gertatzen da eskualde honetako eta Nafarroako talde gehienekin. Oberenak edo Tennis Clubak, aldiz, errepresentabide osoa dute Federazioan, nahiz eta pilotari txiki gutxi dituzten. Hamasei urtetik gorako 25 lizentziagatik botu eskubidea duen ordezkari bat izaten da. Oberenak bizi osoan gauza bera egin du: beheko lana beste klubek egin dute eta pilotari-ekin hamasei urte egin dituztenean edo Iruñera ikastera joan direnean berak fitxatu ditu. Azkenean, badirudi Nafarroako pilotan lan guziera beraien egiten dutela eta hori ez da horrela, gutxien ikusten den lana, gogorrena eta esker txarrekoena, talde txikiok egiten dugu. Eta hori,

nolabait Federazioan islatzea besterik ez dugu eskatzen. Izan ere, Txaruta bezalako talde batek, Baztan eta Malerrekako ehundaka haur biltzen duena, ordezkari bakarra du Federazioan eta Oberenak, 15 edo 20, ez dakit. Klub bakoitzak ordezkari bat bederen izatea eskatzen dugu, eta gero, lizentzia kopuruaren arabera ordezkari gehiago, baina beti ere logika baten barnean, ez neurritz kanpo orain bezala. Bi klubek artean gehiengo izateak ez du inolako

Klub bakoitzak Federazioan ordezkari bat bederen izatea eskatzen dugu, eta gero, lizentzia kopuruaren arabera ordezkari gehiago, baina beti logika baten barnean, ez neurritz kanpo orain bezala. Bi klubek artean gehiengo izateak ez du zentzurik.

zentzurik eta azkenean, bunker bat besterik ez da Federazioa. Klubek Nafarroako Federazioa beste kandidatura bat aurkeztuko dugu, beste modu batera lan egitea nahi baitugu. Federazioaren funtzionamendua demokratizatu nahi dugu, garbiago izan dadila eta, azken finean, pilotaren alde lan egin, horretarako bai-kaude hemen. Pilota talde txikien etorkizuna segurtatzeko modu bakarra delate uste dut. Gainerakoan, orduak eta orduak pilotaren alde lanean ari eta gero, gustoko ez dituzun gauzak ikusten badituzu, azkenean erre egiten zara.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario Vasco 00ko abuztuak 29

«Artikutzara zaldiz etorri gara. Beti izaten da txokoren bat zaldiak utzi eta sagardo edo ur pixko bat edateko».

Koikili FAGOAGA, Javier ORDOKI eta Beñat ORONÓZ

Lesakarrak Artikutzan San Agustín egunean
Diario Vasco 00-08-29

Airez eta bote prontoz jokatzen ohituagoak daude, baita buruz buru aritzeko beharrezkoak diren mugimendu esplosiboak egitera ere».

Iñaki Martínez LIZASO
Doneztebeko erremontelaria
Diario de Noticias 00-08-29

«Zakurra ez dago ardien joarea aditzera ohitua eta horrek pixko bat nahasi duela uste dut. Irabazi dugun arren, ez da nik nahiko nukeen bezala aritu».

Antonio ALUSTIZA
Aresoko artzaia Huarte-Arakilen
Diario de Navarra 00-08-28

«Banan bana aritzeko abantaila da lehendik aurrelari gisara aritu izana, dudarik gabe, arlo guztiak kontrolatzen dituzulakoz. Dena den, aurrelari petoek abantaila gehiago dute.

- ◆ Kazetaria Egunkarian eta Telenavarran. Prentsa idatzia edo telebista nahiago?
- ❖ Xorroxineri esker betidanik irratia izan dut gustoko.
- ◆ Euskaraz edo erdaraz moldatzen zara hobekiago?
- ❖ Zoritxarrez erdaraz hobe.
- ◆ Nori eginen zenioke gustora elkarrizketa bat?
- ❖ Julia Oterori, aunitz gustatzen zait bere lan egiteko modua.
- ◆ Zein egunkari irakurtzen dituzu?
- ❖ Diario de Noticias eta eskura datorkidan edozer.
- ◆ Eta telebistan gehien gustatzen zaizun programa?
- ❖ Documentos TV, Linea 900 eta antzerakoak, ikerketa eskatzen dutenak.
- ◆ Udan lan egitea, neguan baino gogorragoa?
- ❖ Txarrena eguberrietan, iaz bezala.
- ◆ Oporretan, norat joanen zinateke gustora?
- ❖ Eskandinabiara, hain garestia ez balitz.
- ◆ Elbete Elizondoko auzo bat bezala ikusten dutenei, zer erranen zenieke?
- ❖ Je, je... betaurrekoak eros ditzatela.
- ◆ Herriko bestetan zer da gehien gustatzen zaizun ekitaldia?
- ❖ Karrikatxarreko bazkaria.
- ◆ Baztandarren Biltzarrako bazkaria edo herriko gazteen bazkaria?
- ❖ Ederki pasatzen dut bietan.
- ◆ Gan-torri autobusarik erabili duzu uda honetako bestetan edo zure autoa nahiago duzu?
- ❖ Amaiurren hartu behar nuen eta berandu iritsi nintzen.



Rakel GOÑI

Kazetaria
ELBETE



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
☎ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
A G E N T Z I A

- Zurich Aseguruak
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

➔ KULTURA

Baztan Bidasoako Bertso Paper Lehiaketan lanak aurkezteko epea zabaldu da

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Gure Txokoa elkarteak antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Gure Txokoa elkarteak antolatutako Baztan-Bidasoako Bertso-paper lehiaketan lanak aurkezteko epea irailaren 30a arte zabalik egonen da. Partehartzaileak lau mailatan banatuak egonen dira eta eskualde osoko jendeari zabaldua dago lehiaketa.

LAU MAILATAN BANATUKO DIRA PARTEHARTZAILEAK

A mailan, hogei urtetik goitikoek hartuko dute parte eta 8 eta 12 bertso artean aurkeztu beharko dituzte. Maila honetan lehendabiziko saria 50.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 30.000 pezetakoa eta hirugarrena 20.000 pezetakoa.

B mailan, 16tik 20 urte arteko bertso idazleak ariko dira. Sei eta zortzi bertso artean idatzi beharko dituzte eta sariei dagokienez, lehendabizikoak 30.000 pezetakoa sakeleratuko ditu, bigarrenak 20.000 pe-



Bortzirietako Bertso Eskolak hamargarren urteurrena ospatuko du. Argazkia, duela sei-zazpi urtekoa da.

Artxibokoa

zeta eta hirugarrenak 12.500 pezeta.

D mailan, hamabitik hamasei urtera arteko neska-mutilek hartzen ahal dute parte, lautik sei bertso bitarte idatziz. Lehendabiziko saria 7.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 5.000 pezetakoa eta hirugarrena 2.500 pezetakoa.

E mailan, hamabi urte arteko haurrak sartuko dira eta lau koplak edo bi bertso osatu beharko dituzte. Lehendabiziko

saria 4.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 3.000 pezetakoa eta hirugarrena 2.000 pezetakoa.

Aipatu bezala, bertso-paperak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izanen da. Gure Txokoa elkartera bidali behar dira (Eztegarra 17, 31780 Bera) lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz. Lanak makinaz idatziak edo letra onarekin bidali beharko dira eta partehar-

tzaile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu dezake. Epaimahaiak sarriren bat eman gabe uzteko eskubidea izanen du, bertsoen mailaren arabera.

BORTZIRIETAKO BERTSO
ESKOLAK HAMAR URTE
BETE DITU

Sari banaketa, berriz, urriaren 14an egingen da. Berako Kultur Etxean, eta irabazleen bertsoak aditzeko aukera ere izanen da.

Gogoratu behar da ikasturte honetan hamar urte beteko dituela Bortzirietako Bertso Eskolak. Hori dela eta, bertzelako ekitaldi berezirik ere antolatuko dute urte osoan. Manolo Arozena arduradunak jakinarazi digunez, bertso eskolan ikasle eta irakasle izan diren guztiak bertso-afari baten inguruan bildu nahi dituzte. Bertzetik, azkenean bi urteotako ildoari segituz, Bortzirietako taldekako txapelketa egin gogo dute aurten ere. Bertso saio handiren bat ere antolatzeko asmoa dute, baina urte osoan egingen dituzten ekitaldien berri aitzinago emanen dute. «*Bertso eskola batek hamar urte betetzea ez da Nolanahiko kontua, batez ere, kontuan hartzen badugu bertso eskola hori Nafarroan dagoela*» dio Manolo Arozenak.

Aurtengo ikasturtean izena emateko epea ere laster zabalduko da. Horretarako, 948 637891 telefonora deitu behar da, ikaslearen adina zehaztuz.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMITAK
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

LAZAR
☎ 948631076 • BERA

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegarra 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

KAKULÁ
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

bortzIRUDI
BERA
ESTREMOZAK, ENKUAZMANTZAK, PLASERKAZIAK, FAXA, TAMAILA, SKANSERIA, ARRAZAKI MUNTIAK, BERTSO-LEHIAKETA, ENKUAZMANTZAK, INPRINTA LANAK, BERROKAPLA, BERTSO-LEHIAK, PINTURAK, ESTREMOZAK
Eztegarra 26 behean Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ZALAIN
IATETXEA
Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

Kultur Etxea zinezaleen biltoki izanen da irailaren 11tik 14ra

Bidasoako Zinemaldian parte hartuko duten 37 filmeak ikusgai

ASIER GOGORTZA

Heldu den astelehenetik ortzegunera zine areto bihurtuko da Berako Kultur Etxeko gela nagusia, egunero 9 filme labur emanen baitira arratsaldeko 7,30-etatik aitzinera. Zazpi-garren artea deitutakotan trebatzen ari diren zuzendari eta aktoreen lanak egonen dira ikusgai. Sarrera hagitik merke izanen da: 200 pezeta egun batekoak eta 4 egunetarako bonoa ateriz gero, 500 pezeta.

ERAKUSKETA

ETA SARI BANAKETA

Haurrekin ere oroitura dira antolatzaileak, eta hilaren 13an *Rudy txerria* izeneko filmea emanen dute goizean. Irailaren 16an, berriz, filme laburrik onena zein den ikasiko dugu Kultur Etxean eginen den sari banaketan. Filme irabazleak ikusteko aukeraz gain, aktore, zuzendari eta produktore saltsa ere izanen da, beraz.

Azkenik, aipatu behar da aurten ere erakusketa bat antolatu dutela: "Zinea Bidasoa bazterrean: 1900-2000". Kultur Etxeko beheko gelan jarri dute, eta goiz arratsaldez bisitatzen ahal da dagoeneko.



Del Olmo epailearen kontra "prebarikazio kereila" aurkeztea aztertzen ari da Herriko Etxea

Udaleko ordezkari eta langileek abuztuaren 28an eman zuten prentsaurrekoan Jon Abril Kultur Koordinatzaile eta TTPI-TTAPA TELEBISTAKO kolaboratzaileari elkartasun eta babes osoa ematen diola berretsi zuten komunikabideen aitzinean. Gainera, Entzutegi Nazionalako epailearen erabakiak «beratarrak baztertu eta bigarren mailako herritartzat» hartzen dituela salatu dute, akusatua fidantza mugatik hurbil bizitzeagatik handitu egin baitzuen. Jakina denez, Entzutegiaren aitzinean 6 segundoko grabazioa egiteagatik erakunde armatuarekin kolaboratzea leporatu diote Jon Abrili.

Arg.: Asier G.



Adin guzietako 125 atleta lehiatu ziren Agerrako krosean

Eric Vignolles lohitzundarrak irabazi zuen Luis Apeztegiaren omenezko 19. proba. Agerrako besten barrenean urtero egiten den lasterketa honetan beratarrik izan ziren nagusi ia kategoria guzietan, jubenil eta seniorretan ezik. Ondoko hauek izan ziren kategoria bakoitzeko garaileak: Vignolles seniorretan, Bautista Telletxea veteranoetan, Mikel Mutuberria irundarra jubeniletan, Ana Danboriena nesketan, Gwendal Larque infantiletan, Aritz Iriarte alebinetan, eta Javier Errandonea benjaminetan.

Arg.: Asier G.

▼ flash

❖ Josu Goia, Urteko Bidasotarra "El Irunés" aldizkariak partitzen dituen sari hauetako bat Berako alkateari eman diote berriki. Juan Antonio Lekuonak zuzentzen duen aldizkariaren ustez Bidasoako Herriaren alde gehien egin duten pertsonen artean dago Josu Goia.

❖ Palentziako Itzulian Patxi Vila nagusi Zamorako Itzulia irabazi ondotik Palentzian denboraldi-bigarren garaipen handia lortu zuen beratarrik joan den astean. Erlojuaren kontrako etapan egindako erakustaldia izan zen itzulia eskuratzeko giltza. Bertetik, Gure Txokoako Joseba Larralde infantilak bigarren egin zuen Ribafordan jokaturako Nafarroako Kirol Jokoen proban.



belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia 1, behea • BERA • ☎ 948 630652

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura,
papera, moketa eta sintasola.

☎ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA



☎ 948 631462
Altzate 1 • BERA

➔ LESAKA

Hirurteko Planean sartu nahi diren lanen inguruko eztabaida piztu zen Udalean

759.625.612 pezetako aurrekontua dute Herriko Etxetik eskatutako lanek

AITOR AROTZENA

Udalak 759.625.612 pezetako aurrekontua duten lanak egitea eskatu du, Nafarroako Gobernuak 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planean sartu ditzan. Bertzeak bertze, herrian argi berriak paratzea, Frain auzoan edateko ura banatzea, herrigunea zolaberritzea, Nabazko bidearen zati bat moldatzea, Izotzaldeako bideak moldatzea, Otsango auzoko hegoaldeko saneamendua eta NILSAk egindako txostenaren arabera, ur zikinaren sarea hiru lekutan berritzea izan dira eskatutako lanak.

Hauetaz gain, EHk bertze borts lan egitea eskatu zuen batzarrean. Herriko argindar sarea moldatzea eta lur azpian sartzea, zola berritzea, Herriko Etxean lokalak egokitzea, Biurgaraitik Bereau bitarteko bidegorria edo pasealekua eta Luberrondotik Arratzubiko zubi artean aparkalekuak egitea eskatu zuen, bertzeak bertze.

EHREN PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA

Gai honen inguruan, eztabaida piztu zen alkatearen eta EHko ordezkarien artean. Alkatearen erranetan, «Hi-



Beti Gazteko areto-futbol taldeak jokalariaik behar ditu 1991-92 denboraldiko argazkiak agertzen duenez, ez da oraintzekoa Beti Gazteko areto-futbol taldea. Aurten taldea kantxaratzeko arazoak ditu. Joan den denboraldi bukaeran jokalariai aunitzek taldea utzi dute eta horiek ordezkatzeko berriak behar dira. Rafa Retegi entrenatzaileak adierazi digunez taldea ez dago lesakarrentzat bakarrik irekia, Bortzirietan eta inguruko herrietan kirol honetan ari nahi dutenentzat baizik. Norbaitek taldean parte hartu nahiko balu irailaren 15a baino lehen deitu beharko du 948 637706 telefonora (Rafa).

Arxibokoa

urteko Planean, onartuak izateko aukera gehien duten lanak sartu ditugu, baldintza tekniko eta ekonomiko batzuk betetzen dituztenak». EHko proposamenei buruz, zera erran zuen: «bidegorria ez da programa honetan sartzen ahal, aparkalekua eta Herriko Etxeko banaketarena ez dute lehentasunik eta ez dute aitzinera ateratzeko

aukerarik, ezta argindar sarea lur azpian sartzeak ere. Eskaerak logika izan behar dute, bertze guziaz norbaiten aitzinean ongi gelditzea gogoaz bertzerik ez da».

EHko ordezkariaren ustez, udal aurrekontuak egiterakoan, Hirurteko Planean sartu beharreko lanen proposamenean eta eguneroko lanean baztertuak izan

dira. «Behin eta berriz elkarlanean aritzeko botorratea agertu dugu. Plan honetan ere gure ekarpena agertu dugu eta erantzuna eman beharrean edo gure ideiak kontutan hartu beharrean erantzun bakarra da ongi gelditu nahi dugula. Erabat baztertu, zokoratu egin gaitu eta deus egiten baldin badugu, ongi gelditzeko dela dio».

▼ flash

❖ Musika Eskolan ekainean matrikularatu ez zirenak irailaren 4tik 14ra ematen ahal dute izena Herriko Etxego bulegoan, goizeko 8etatik 11etara. Helduen tailerrean parte hartu nahi dutenentzat ere matrikula epea zabalik dago. Ikasurtea urriaren 2an hasiko da.

❖ Irain eskolan konponketak Irain eskolako aitzinaldea, teilatua eta eskailerako manparak konpontzeko lanen kontratua lehiketa deialdia egin du Udalak. Aurrekontua 6.503.435 pezetakoa da (BEZ barne) eta lanak egiteko epea heldu den urteko ilbeltzaren 8an akautuko da. Eskolako pilotalekuko teilatua konpontzeko eta bertze lan batzuk egiteko ere lehiketa deialdia egin du Udalak. Aurrekontua 12.137.541 pezetakoa da (BEZ barne) eta hilabeteko epea izanen da lanak egiteko. Proposamenak irailaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira.

Lurrindendé
Marian
endiberrí
Estetika
Behoko Plaza 8 ☎ 948637791 • LESAKA

BITTIRIA
HARATEGIA
☎ 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

ANNA
jauridenda
Bittiria 41 ☎ 948 637518 • LESAKA


XATURBETXEA
ZAZPI
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ETXALAR



Argindarrez funtzionatzen duen mailua ageri da argazkian. Argazkia: Nerea



Orain arte martxan egon den makinaria eta guztia martxan jartzen duen programatzailea. Argazkia: Joseba

flash

- ❖ Etxeberriko bordako zubia berritza Arkaitza S.A.-k hartuko du. Aurrekontua 2.498.215 pezetakoa da. Lanak urte bukaera baino lehen akautu beharko ditu.
- ❖ Azienda hilik ez Udal bandoaren arabera Iturraldeko borda alderdian, obretako hondakinen zabortegian zabortegia hila botatzea debekatua egonen da.
- ❖ Usategietako postuen enkantea Usategiak errentan paratzeko enkantea udaletxean egin da irailaren 2an, eguerdiko 12etan, ahozko eskaintzen bidez.
- ❖ Ur depositua handitza Onartu da 300 metro kubiko dituen depositua egin eta ur tratamendurako planta handituko duen proiektua. Nafarroako Gobernuak 28.814.400 pezetako laguntza eman dio.

Elizako ezkilak eta erlojua elektrifikatu dituzte

Gisa horretara gehiago aditzen dira orain

JOSEBA ETA NEREA

Elizako dorrean lau ezkila dira, bi ttiki, ehun kilora ailegatzen ez direnak, eta bi haundi, 1.700-2.000 kilokoak. Ttikiak, txintxila deitua bat, itzulika ibiltzen dira, bertzeak berriz mailuak jotzen ditu. Txintxilak baditu urte batzuk argi-indarrez ibiltzen

dela. Orain, berriz, bertzeak ere elektrizidadez ibiliko dira edo joko dute. Sakristian paratutako programatzaile aparatotatik mugitzen eta jotzen dira. Eta ez hori bakarrik: erlojua ere sakristiako aparatotatik beretik erabiltzen da, hori ere argi-indarrez, eta ez zaio soka eman beharrik astero, orain

arte bezala. Ezkila jotzeko mailuak handiagoak direnez eta indar handiagoz jotzen dutenez, soinua ere handiagoa da orain.

Arazoak oraindik ere postarekin

Bilbo eta Iruñeko arduradunek buzoiak paratzea proposatu dute eta ziurtatutako posta

etxeetara eramatea. Hauen gastua baserrien edo Udalaren gain egonen da. Bertzalde, «El Consultor de los Ayuntamientos»-en informea ailegatu bada ere, Nafarroako Gobernuaren erantzunik ez da jaso. Udal eta Kontzejuen Federazioak uste du konponketa bidea egiakioa dela.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
948635290 ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
E E K L E
st tu
Tfnoa: 948630259 - BERA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

Pinturak eta barnizak
LESAKA
686 805435
948 637556
Manuel Zamorano

LEGARRA
Legarrea, 9 • 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

HARITZPE
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Egunero idekia. Asteazkenetan atsedean eguna.

IGANTZI

Mendi Bizikleta Ibilaldia igandean egingen da

Haurren pilota txapelketa aste honetan hasi da

OSKAR TXOPERENA

Heldu den igandean, irailaren 10ean, izanen da Igantziko X. Mendi Bizikleta Ibilaldia. Ohiko ibilbidearekin, berriro ere 100 txirrindularitik goiti bil-tzea espero da Igantziko inguruetan. Aurten ere sei kategori ezberdinetan sailkatuko dira mendi-bizikletazaleak, 16 urtetik goitikoek 22 kilometroko ibilbidea osatu beharko dutelarik, hau da, bi itzuli herri inguruko zirkuitoari.

Iaz Roberto Valcarlos iruñearra izan zen azkarrena helmugarazten, Joxe Mari Goia izan zelarik bigarrena eta Jose Lorenzo Esteban iruñearra hirugarrena.

Izenemate sariak bere horretan segiruko du aurten ere, 500 pezeta ordaindu beharko bai-



Joan den urteko mendi-bizikleta probako podiuma: Valcarlos, Joxe Mari Goia herritarra eta Esteban.

Argazkia: Oskar Txoperena

tira parte hartzeko, gaztetxoak izan ezik, dohai-nik izanen baitute. Ha-maiketakoa, zozketa eta sariak ere ez omen dira faltatuko.

Izan da aurtegoan antolatzaileak kezkatzeko moduko gorabeherarik, egun bererako antolatu

baitzuten Nafarroako Monrealen bertze mendi-bizikleta proba, Higa de Monrealako igoera. Azkenean, antolatzaileekin harremanetan jarrita, Monrealakoa hurrengo larunbaterako gibelteza lortu da.

Haurren Pilota Txapelketa

24 hurrek jokatuko dute bestak bitarteko aste hauetan I. Pilota Txapelketa. Orain bi aste hasi zituz-

ten ekainean oporren-gatik gelditutako aste-roko entrenamenduak eta aste honetan berean zuten hastekoa txapelketa. Bi taldetan banatuta jokatuko dira partiduak: Alde batetik neska-mutiko koxkorrez osatutako zortzi bikote



Txoperena eta Telletxeak irabazi dute pala txapelketa

Urtero bezala, Pala Txapelketa izan da uda honetako ortziral eta larunbat ilunabarretako animatzaile. Pilotaleku ingurura hurbildu garenok partidu ederrez gozatzeko aukera izan dugu. Iazko txapeldunek, Juan Jesus Telletxea eta Iñaki Hitak erdifinaletan sartzeko aukera guziak galdu zituzten ligan jokatutako azken partidu kaxkarrarengatik. Azkenean, argazkian ageri diren lau pilotariak jokatuz abuztuaren 5eko finala, eta jende multzo politaren aintzinean, Josetxo Txoperena eta Imanol Telletxeak irabazi zuten txapela, 97an bezalaxe. Juankar Unanua eta Felipe Lizardik, txapelketa ederra jokatuz ondotik, ez zuten beren maila erakusterik izan azken partidu honetan.

Argazkia: Oskar Txoperena

ariko dira lehian, eta bertzetik, hasi berriak edo tttikiagoak direnak, sei bikote osatuz. Erran bezala, aste honetan hasi

da txapelketa eta beste-tako igande goizean jokatuko dira finalak, bertze zenbait partiduren artean.

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • ☎ 948453060

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxe: 948 637508

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Terraza eta plater konbinatuak
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 • (948) 627547 LESAKA

LESAKA

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

➔ ARANTZA

➔ SUNBILLA

Eguraldi nahasia baina giro ederra aurtengo Amabirjin bestetan

Zioren musika taldeak bere lehendabiziko agerpenak egin ditu

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko besten erre-paso ttiki bat eginez, inoiz baino eguraldi nahasiagoarekin igaro dira bestak. Abuztuaren 14an, txupinazoa bota bezain laster, hasi zen giro ona herrian, herriko dantzariak eskainitako dantzekin eta, batez ere, jende guziaz irriz utzi zuten akatsekin. Hurrengo bortz egunetan ikuskizun aunitz izan ziren, hala nola, jendetza ikaragarria bildu zuen Euskal Herriko Aizkolaria Txapelketaren barrenean hamasei aizkolariek eskaini zuten saio ikusgarria, pilota partiduak, inoiz baino lasaia izan zen herri bazkaria eta gauero plaza alaitzen zuten taldeen musika. Trumoi eta tximista artean igaro ziren pare bat gaueetan herrian jende gutti ikus bazitekeen ere, asteburuan herria ttikiagi gelditu zitzaigun frontoian antolatutako kontzertua zela eta. Pentsatu baino jende gehiago etorri zen eta joan den urtekoa baino arrakastatsua izan da aurtengoa. Kontzertu hau egiteko dirua lortzeko saldu ziren boletoen zozketa Gazte Asanbladaren bileran egin zen. Saritutako zenbakiak, 1629 eta 0854 dira. Saria jasotzeko Gazte Asanbladara jo behar da.

Depuradorako lanak ez dira hasiko oraindik

Depuradora egiteko lanak oraindik ez dire-



Zioren taldeak bederatzi kanta dituen maketa plazaratu du. Artxibokoa

la hasiko jakinarazi du Herriko Etxeak, horretarako behar beharrezkoak diren tramiteak egiten ari baitira oraindik, batzarrean onartu eta gero. Bertzalde, eskola azpian egiten ari diren apartakaleku turistikoak bukatzeaz dago, eta oraindik apaindurak falta bazaizkio ere, dagoneko erabiltzen ahal da.

Lau haur berri hasiko dira eskolan Uda bukatzearekin

batera oporrak ere akautu zaizkie eskolako haurrei. Aste honetan, irailaren 7an, hasiko dira berri ere haurrak klasean, lehendabiziko hila betean jantokia izanen ez badute ere. Aurtentzen lau haur berri hasiko dira eskolan, bi neska eta bi mutiko, hiru eta lau urtekoak.

Zioren musika taldea Jakinen duzuen bezala, herriko gazte ba-

tzuk musika talde bat sortu berri dute. Amaia, Idoia, Raul, Javi eta Jon Koldok osatutako Zioren taldeak beraien bederatzi kantekin maketa grabatu berri dute Lizuniagako aduana zen etxean, Maikel Berako teknikariaren laguntzarekin. Herrian emandako kontzertuaren ondoren, bai Bergaran baita Beran ere jo dute. Hurrengo kontzertua irailaren 16an Lesakan eskainiko dute.

Kirol ekitaldiz beteak joan dira Santiburtzioak

Santiburtzioetako egitarauan berrikuntza handirik egon ez bada ere betiko ekitaldietan partehartzea geroz eta handiagoa da. Kirola, beti bezala, bestetako protagonista izan da. Aizkora apostuan Felix Etxeberria sunbildarrak Antonio Senosiaini irabazi zion. Gaztetxoaren pilota partiduetan, aipatzekoa Luis Ibarra eta Imanol Apeztegiak egindako erakustaldi bikaina. Goitiberetan, txapeldun berriak izan ziren aurtentzen, Sergio, Enrique eta Haritzen tramankulua izan baitzen azkarrena. Aitzur tiraketaren bigarren edizioan iazko txapelduna, Xibola, nagusitu zen. Sunbillan asmatutako zartain tiraketan Txus Rekarte izan zen urrutien bota zuena.

Bertze gauzarik ere izan zen ikusgai. Hasieran pentsatua ez bazegoen ere, San Tiburtzio egunean su artifizialak izan ziren Astondoa piroteknikiaren eskutik.

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
 BERA
 ☎ 948 630 763

KOXKILA
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

MARTIKO
Gure baserrietako produktuak

☎ 948 625016 • Fax 948 625036
 Alkaiaga Industrialdea • BERA

➔ **MALERREKA**

Oizko bestak irailaren 7tik 11ra ospatuko dira

Mindegia eta Arrospideren
arteko apostua igandean

Ortzeguna, irailak 7
Arratsaldeko 8etan altxaferoak, bestei hasiera emateko. Txistulariak herrian barna ibiliko dira. **Gaueko 12,30etatik goizaldeko 4,30etara** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin.

Ortzirala, irailak 8
11,30etan Meza Nagusia. Ondotik, hameketakoa herriko elkartean. **5,30etan** herritarren artean laxoa partida, helduak gazteen aurka arituko dira. **8,30etatik 10,30etara** eta **12,30etatik 4,30etara** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Ondoren, zingarra jatea herriko elkartean.

Larunbata, irailak 9
11etan mustxapelketa herriko elkartean. **5etan** Haurren Eguna herriko plazan. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Ondoren, zingarra jatea herriko elkartean.

Igandea, irailak 10
Eguerdiko 12,30etan aizkora apostua: Mindegia Arrospideren aurka. **5,30etan** pilota partiduak afizionatuen artean. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia

Aurten ere izanen da aizkora aposturik, igande eta astelehenean. Soinularek ere bere lana bete beharko dute.



LAIOTZ taldearekin. Ondoren, zingarra jatea, herrko elkartean. **Astelehena, irailak 11**

11etan herri kirolak: Antonio Latasa eta Agite, Aierbe eta Arria II. ren aurka. **2etan** herri bazkaria, Xebastian

Lizaso eta Andoni Egañarekin. **5etan** toka eta sokatira saioak, herritarren artean. **Arratsaldez eta gauez**

dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. Bestei bukaera emateko, kalejira eta Gaixoa Ni.

NARBARTEKO
HERRIKO
OSTATUA

MENUAK eta KARTA

*Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu*

San Andres 1
Tfnoa: 948 592159
NARBARTE

SELEZONES UDENA, S. L.

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**ETXANDI
TXOKO**

jatetxea

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN

☎ 948 45 04 91

➔ **MALERREKA**

Eratsungo Santa Leokadia festak irailaren 8tik 11ra ospatuko dira

Nafarroako froga konbinatuaren finala jokatu da larunbatean

Ostirala, irailak 8

Goizeko 9etan txupinazoa eta ondoren txistulariek itzulia emango dute herrian, festari hasiera emanez. **12etan** Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren ohorez. **1etan** aizkora apostua: Mindegia Olasagastiren kontra. **4etatik 8etara** umeen parkea, karts eta gaztelu haizatuekin. **6etan** idi froga, Olasagastik aurkeztutako idiekin. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Larunbata, irailak 9

11etan mus txapelketa. **6etan** Herri Kirolak, Nafarroako froga konbinatuaren finala. Taldeak, nesketan: Etxauriko Arana eta Ultzama. Mutiletan: Odieta, Berriozar eta Arraioz. **8etatik 10etara** trikitilariak. **Gaueko 1etatik 5etara** dantzaldia KINU taldearekin.

Igandea, irailak 10

10etan plater hausketa, herriko txapelketa. **6etan** pilota partiduak: Alebinak:



Joan den urtean inauguratu zen pilotalekuan hainbat ekitaldi egingen dira aurtengo festetan

Bendoiro eta Ravina, B. Retegi eta Estangaren kontra. Gazteak: J. Retegi eta Etxeberria, Etxebeste eta Erasoren kontra. Afizionatuak: Baleztena eta Eskudero, Irazoki eta Retegiren kontra. **Arratsaldez eta**

gauez dantzaldia MODESTO akordeolariarekin. **Astlehena, irailak 11** **2etan** herri bazkaria bertsolariarekin. Bertsolariak: Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagar kano. **6etan** pilota partiduak: Infantilak:

Urrutia eta San Migel, Arregi eta Ezkurraren kontra. Jubenilak: Altzugarai eta Eskudero, Leitza eta Irurtzunen kontra. **Arratsaldez eta gauez**, festari bukaera emanez, dantzaldia MODESTOrekin.

Arkupeak elkarteko kideak Lezo eta Saloura joanen dira

Arkupeak erretiratuaren elkarteko kideak ez dira geldirik egotekoak eta irailaren 14an, Santa Kruz egunean Lezora joanen dira autobusean. 11etan Meza Nagusia adituko dute euskaraz. 12etako erdarazko mezaren ondotik, kirol jaialdia izanen da. 1,30etan autobusa Hondarribiara abiatuko da, Ardora Jatetxean bazkaltzeko. Bazkal ondotik, dantzaldia izanen da eta 8etan itzuliko dira etxera.

Urriaren 2tik 9ra, berriaz, Kataluniara joateko asmoa dute. 2an, goizeko 6,45etan Irunetik abiatuko da autobusa eta Zaragozan geldituko dira bazkaltzera eta Pilarika bisitatzera. Urriaren 3tik 8ra Saloun egonen dira. Nahi duenak hondartzan gelditzeko aukera izanen du, baina txangoak ere egingen dituzte, Port Aventura, museo eta inguruko leku interesgarrietara.

Suteen kontrako neurriak hartuko dira Bidasoa-Berroarango mendietan

Ur-putzuetara bideak moldatuko dira eta lan osagarriak egingen dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak Gestión Ambiental de Viveros y Repoblaciones de Navarra elkarte publikoaren esku utzi ditu Bidasoa-Berroarango mendietan suteak aurrikusteko egin beharreko lanak. Zehazki, mendi hauetan

dauden ur-putzuetara bideak moldatuko dira eta lan osagarriak egingen dira. 4,93 milioiko aurrekontua izanen da.

Bidasoa-Berroaran eta Kokoriko mendietako junten aurrekontua

Bidasoa eta Berroarango mendietako Administrazio Juntak 143.638.107 pezetako aurrekontua izanen du

aurten. Kokoriko Mendien Juntak berriaz, 17.091.377 pezetako aurrekontua onartu du.

Mendiko kontuekin segituz, abuztuaren 23an sute batek bi hektarea larre erre zituen Askin mendian. Bonberoek kamioiek eta bi helikopterok sua itzaltzea lortu zuten, Bidasoa errekatik eta Doneztebeko igerilekutik ura hartuz.



Askin mendiko sua itzaltzeko Doneztebeko igerilekutik ura hartu zuten helikopterok.

👉 DONEZTEBE

Udal kiroldegia larunbatean zabaldu zen ofizialki

115 milioi pezeta gosta da eta 400 ikusle sartzen ahal dira

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan zabaldu da lehen aldiz Doneztebeko udal kiroldegia. Herriko Etxeko ordezkariekin batera, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate eta Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak eta Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendaria izan ziren ekitaldian.

Lana Mariezkurrena enpresak hartu zuen, 109 milioi pezetaren truke. Dena den, azpian topatu duten lurra txarra zelako zimentazio lan handiagoa egin behar

izan dutelako eta proiektuari egindako hobekuntzen ondorioz, sei milioi terdi gehiago gosta da, Miguel San Miguel alkateak jakinarazi digunez. Gainera, inguru guziaz urbanizatu eta 60 autorentako aparkalekua egiteko bertze zazpi milioiko inbertsioa egin da. Denerata, zortzi hilabete igarotuzte lanak egiten.

Kiroldegiak saskibaloian, eskubaloian edo areto-futboleantzeko balio duen pista izanen du. Horretarako, batetik bertzera mugitzen diren saskiak eta porteriak jarri dira.



Liborio Ariztia txirrindulari doneztebarra garaile Tafallan. Ez da nolahaniko denboraldia betetzen ari Urtxintxa-Aptiva gazte mailako txirrindulari taldeko Liborio Ariztia doneztebarra. Lesakan bigarren izan ondotik, bi lasterketa irabazi ditu, azkenekoa Tafallan abuztuaren 19an. Azken Tourrean etapa bat irabazi zuen Banestoko Chente Garciak eta Davi bere anaiak eman zioten irabazlearen saria.

Diario Noticias

«Errekako eskubaloi talde ezberdinek eta Baztan-Bidasoako futbito txapelketak egoitza ederra izanen dute. Orain, saskibaloian aritzera animatuko den talde bat biltzea nahi dugu» dio alkateak. Gainera, lau aldagela, komunak, arduradunarenda-

ko gela, muskulazio-aretoa eta biltegia izanen ditu. Harmailtan, 400 ikuslerendako lekua izanen da.

Gisa honetara, pilotalekuak lasaitu ederra hartuko du, erremonte eskolarekin, pilota eta paleta txapelketekin edo herri kirol saioekin zai-

la baitzen libre topatzea.

Iñaki Sese beratarra izanen da kiroldegiaren arduraduna datozen lau urte terditan. Berak zuzentzen duen lan taldeak herriko bertze kirol instalazioak ere (igerilekua, pilotalekua, eskolako gimnasioa...) kudeatuko ditu.

👉 ELGORRIAGA

Onddoaren Kofradiak antolatutako Bigarren Argazki Rallya egingen da igandean

Goizeko 9etan hasi eta Onddoaren Bidean atera beharko dira argazki guziak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiak, Nafarroako Gobernuko Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamenduaren eta zenbait erakunde komertzialen laguntzaz bigarren urtez antolatutako Argazki Rallya egingen

da igande honetan, irailak 10, Elgorriagako Onddoaren Bidean. Izen ematea 948 450376 telefonoan egin behar da, irailaren 8a baino lehen. Bertzenaz, egun berean ere egingen ahal dira, baina hauek ez dute bazkaltzeko lekua segurtatua izanen. Izen-ematea, bazkariarekin, 3.000

pezeta kostako da eta bazkaririk gabe 1.500 pezeta. Igandean, goizeko 9etan abiatuko dira partehartzaileak eta 1etan akituko da proba. Ordu laurden lehenago, altxaferoa botako da Rallyaren akabaila adierazteko. Partehartzaile bakoitzak koloretako 24 argazki ateratzeko ka-

rretea jasoko du. Errebelatzerakoan, karrete bakoitzeko 12 argazkaririk onenak aukeratuko dira. Antolakuntza bere arduratuko da argazkiak errebelatzeaz eta Kofradiak Elgorriagako Kultur Etxean erakutsiko ditu argazkiak.

Sariei dagokionez, lehendabiziko sailka-

tuak 60.000 pezeta trofeoa izanen du. Bigarrenarentzat 40.000 pezeta eta trofeoa izanen da eta hirugarrenarentzat 25.000 pezeta eta trofeoa. Saritutako argazki eta negatiboak antolakuntzan esku geldituko dira eta gainerakoak korreoz edo sari banaketan itzuliko dira.

➔ GOIZUETA-ARANO

Repsol-ek eramanean du gasa etxe guzietara

Gai honetaz informatzeko herri batzarra izanen da larunbatean

ESTEBAN AROTZENA

Lerro hauek idazterakoan behin betiko kontratua sinatu gabe zegoen arren, gauza jakina da Repsolek zabalduko duela gasa herri osoan barrena, Herriko Etxean jasotako bi eskaintzen artean (aipatutakoa eta Cepsarena) konpainia horrena baita udalbatzaren iritziz interesgarriena, besteak beste herritarrentzat

merkeena bera delakoz.

Dagoeneko gaiak jakinmin haundia sortu duenez, heldu den larunbaterako, irailak 9, herriar guztiak deitu ditu Udalak arratsaldeko 7etan Herriko Etxean burutuko den batzarra. Repsoleko teknikoak ere bertan egonen omen dira proiektuaren zehaztasun guztiak eman ahal izateko. Horretaz gain, ondorengo hamabost egunetan ere Uda-



Festa mundialak aurtengoak ere

Aurtengo Amabirjinak goraiatzeko premiarik ez dago, bakar bakarrik esan urtero bezala, mundialak izan direla. Halere, larunbatekoa aipatu beharrean gaude, hagitx giro berezia sortu baitzen herrian idi apostu, sagardo festa, herri kirol jaialdia eta gaueko berbena bereziari esker.

letxean egoteko asmoa omen dute interesatuek banan banan informazioa jaso dezaten.

Herriko Etxea 35 milioitan moldatuko da

Hurrengo urtetik au-

rrera indarrean egonen den Hirurteko Planaren zain egon gabe Herriko Etxea konpontzen hasitako baimena jaso du udalak Nafarroako Gobernutik, baita berehala Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidali ere 35

milioitik goitiko aurrekontua duen lanaren lehiaketarako deialdia. Irailaren 20an bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea. Handik zazpi egunetara, arratsaldeko 1etan, irekiko dira proposamenak.

➔ ARESO

Udalak omenaldia egin dio Juan Eraso musikariari

Musikari eskaini dio bere bizia aresoarrak

JUANA MARI SAIZAR

Abuztuaren 15ean Juanito Eraso Olaetxea musikariari omenaldia eskaini zion Udalak. Juanito Areson jaio zen 1914an. Txikitatik antzeman zitzaizkion musikarako dohaiak. Lehiaketa eta kontzertuetan izandako partehartze arrakastatsuen ondoren Gerrate Zibilarekin batera ekin zion bere karrerari. Elizondoko korala sortu zuen eta 1952an Langoleneko

abesbatzen lehiaketa ospetsuan lehendabiziko saria eskuratu zuten. Folklorean eta Polifonian lehenengo postu banalortuz. 1953an lehen saria jaso zuten Erroman. Gainera, Elizondoko banda osatu eta zuzen-



Juanito Erasok herri-tarren omena jaso zuen abuztuaren 15ean.



Antonio Alustiza eta Jai irabazle

Huarte-Arakileko Artzai Txakur txapelketan Antonio Alustiza eta Jai bere txakurra suertatu ziren garaile. Hau hirugarren aldia da txapela lortzen dutela. Froga guztiak gaituzten bakkarra izan zen. Bere esanetan, txakurraren lana espero zuena baino txarragoa izan zen, ardi batzuk zintzarriak baitzituzten. Dena den, lan polita egin zuten eta merezitako lehen postua lortu.

du zuen, Iruñeko Kontserbatorioan 19 urtez irakaslea izan eta gero.

Donostiako Orfeoiko kideei Erreterian eman zien klaseak.

LEITZA

Saharako neska-mutikoentzat ere oporrak bukatu dira

Pestetako gertaerak eztabaidatu ziren udal batzarrean

ANTTON ERKIZIA

Bi hilabetez egon dira gure artean, leitzar familietan udapasa. 24 neska-mutiko saharatar etorri ziren gurera, hango gabeziak pixkoat ahanztearren. Laztan, mimo eta babes guztiak –kapritxo batzuk ere– izan dituztelakoan gauden, baina hasten den guztia bukatzen omen da, eta hauei ere bukatu zaizkie oporrak. Esperientzia? Denetatik aditzen da. Gazi-gezak.

Pestetako gertaerak

Pestei buruz ez zuen balantzerik egin Udalak ohiko batzarrean. Bai ordea egun horietan emandako gertaera batzuz mintzatu ziren. UPNko udal taldeak bere zinegotzi baten furgoneta nahita erre izana salatu egin zuen. EHko udal taldeak «deitoratu» zuen gertaera



hau. Ekintza hau eta egun horietan emandako bortxazko beste ekintza batzuk ere: pesta bezperan Guardia Civilak herria dena armaz hartu izana (nahiz eta baimen guztiak zeuzkan udal manifestazioak), herriko gazte batek jasadako detentzioa-kriminalizazioa eta berak salatutako torturak, zinegotzi batek hartu ziotuen mehatxu itsusiak... «Denok ari gara sufritzen. Noiz arte horrela? Bilatuko al diogu behin-

goz irtenbidea hitzeginez, behar den tokian eta behar denetaz hitzegiten?» galdetzen zuen alkateak.

Pestak orohar

Udalak oraingoz balantzerik egin ez badu ere, sentsazio ona gelditu da pesta ondoren. Jendearen ahotatik aditutakoaren arabera, urtetik urtera hobetzen ari omen diren puntuak: pesten oihartzuna, kan-



poko jendearen etorrera, txarangarekin partizipazioa, kotxerik ga-

flash

- ❖ Igerilekuak
Oso ona igerilekutan enpresa berriak ematen ari den zerbitzua. Bizkortzen da gipuzkoar enpresaren izena eta jendea oso kontentu dago.
- ❖ Balkobeak eta etxe-atariak
Asko «ikasten» ari gara balkobeak eta etxe-atariak apaindu eta edertzen. Leitza herri hotza da, baina urtetik urtera lore ederragoak ageri dira. Bertakoek eta kanpotarrek ere oharitzen garelara (eta eskertzen dugula) jakin ezazue.
- ❖ Hiru mila biztanletik jaitsi zen Leitzako zentsoa iaz. Harripazak hori! Eta hamaialau bikote ezkondu dira oraingoz aurtent.

beko pesta eremuak, garbitasuna, ekintza ofizialeko bariatatea... Puntu negatiboak: droga kontsumoaren gehitze ukazina (legalak eta ez-legalak), gazte batzuren bromatxarrak eta zakarkeriak, lizunkeriak (sic), tabernatako musiken eskandalua, adin batetik gorako jendearen partizipazio-eza. Pesta aspergarriak izan direnik behintzat ez diogu aditu inori.

Leitzaundi herritik dator notizia, zezen bat izan dela jenioz bizia...

Zezen bat ez, lau zezen, eta hamabost egun, 15, egin dituzte Marcillako zezen iheslariek gure mendietan. Pestetako igande goizean, kamioian sartzerakoan, astakirten batek ataka ireki zien eta jende artetik hanka egin zuten larretara. Lanak eman dituzte bi astez. Labetxeko ikuiluko atarian ateratako argakian ageri diren mutil bizkor horiek izan dira zezenak bildu, lotu eta kamioira sartu dituztenak. Badute zer kontu. Eta zezenak haserre, oso haserre gero! «Non harripatuko ditugu berriz hemengo larre goxoak, pagodi freskoak, hemengo askatasuna» omen zioten zezenek, marruka. Arg: Antton



IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

(943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

BEINTZAko OSTATUA

948 450 014

BEINTZA-LABAIEN

➔ BAZTAN

Elbeteko Gurutze Sainduaren bestak irailaren 14tik 17ra

Larunbatean gan-torri autobusa izanen da

Asteazkena, irailak 13
Bezpera Egune

Arratsaldeko 6etan suzuria beste hasmenta emateko. **8etan** Baztan zopak ostatuan (Txartela erosi). **12etan** txopo goratzea. Ondotik dantzaldia FRANCISCOrekin.

Ortzeguna, irailak 14
Gurutze Saindu egune

11etan Meza Nagusia. **1etan** hameketakoa Herriko Ostatuan. **5etan** Erdi Aroko karrika antzerkia. **8etatik 10etara** dantzaldia FRANCISCOrekin. **10etan** mutildantzak. **12,30etatik 3etara** dantzaldia FRANCISCOrekin.

Ortzileria, irailak 15

2etan gazteen bazkaria. Ondotik futbol partida: zaharrak gazteen aurka. **6etan** Gorriti eta bere animalien kuskizuna. **8etan** dantzaldia MIKEL eta AINARArekin. **10etan** mutildantzak. **12etatik 4eta-**

ra dantzaldia MIKEL eta AINARArekin.

Launbete, irailak 16
Haurren Egune

5etan haurrentako ekitaldiak, Baztandarren Biltzarren eskutik. **6etan** txokolata jatea eta japoniar bonbak. **8etatik 10etara** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10etan** mutildantzak. **1etatik 5etara** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. Gan-torri autobusak izanen dira.

Igandea, irailak 17

12etan Meza Nagusia. **5etan** bapateko mus puntuala! **8etatik 10etara** PAMPI PORTUGALEn kantaldia, Baztango Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. **10etan** mutildantzak. **10,30etatik 12,30etara** dantzaldia PAMPI PORTUGALEkin. **12,30etan** Gaizua Ni eta besten akabaila.



Goitian, 1997ko iñauterietako argazkian, gazteak mozorratuta. Behegian gan den urteko iñauterietako bazkarian. Bestetako bazkarian ere gisako giroa izanen da.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



Jaimerena

ileapaindegia

Ireki berria

Gizaseme eta emakumeendako
Estetika - Solarium

☎ 948 58 12 73 • Santiago 19 • ELIZONDO

BAZTAN

Udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea zabaldu da

Bideari So margo erakusketa ikusgai dago Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak antolatu dituen udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea irailaren 18a bitarte zabalik egonen da. Marrazketa artistikoko bi ikastaro egingen dira 48na ordukoak; altzari zaharren konponketako bertze bi ikastaro egingen dira, 48 eta 104 ordukoak; 48 orduko eskulanetako ikastaro bat egingen da eta ehoziri-lanetako 24-na orduko bi ikastaro.

Ikastaroak hamasei urtetik goitiko pertsonentzat zabalduak daude. Altzari zaharrak konpontzeko ikastaro laburra urriaren 9tik azaroaren 20ra emanen da, astelehen eta asteazkenetan. Luzea berriz, urriaren 6tik abendua artio izanen da, ortziral eta larunbatetan. Tailerreko 26 ordu udal onda-



Felix Irigoien eta Izar irabazle Abuztuaren 20an burutu zen Areson Artxate eta Larrea elkarteek antolatutako Nafarroako Artzai zakur txapelketa eta bertan Felix Irigoien amaiurtarraren Izar collie arrazako zakurra suertatu zen garaile. Jose Manuel Martiarena elizondarraren Listak zakur onenaren saria jaso zuen.

rea konpontzen emanen dute. Marrazketa ikastaroak urriaren 4etik 21era

emanen dira, astearte eta ortzegunetan. Ehoziri-lanetako ikastaroak urriaren 2tik abenduaren 14ra egingen dira, bat astelehenetan eta bertzea ortzegunetan. Eskulan ikastaroa urriaren 3an hasiko da eta astearte eta ortzegunetan emanen da.

Bideari So margo erakusketa

Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean «Bideari So» izeneko margo erakusketa zabalik dago irailaren 13a bitarte. Nafarroako artisten Santiago Bideari buruzko argitaratu gabeko lanen erakustaldia da. Elizondoko Kultur Etxearen atea arratsaldeko 5etatik 9etara zabalduko dira, igande eta besta egunetan ezik.

Arraioztarrak bikain aitzur jaurtiketan

Gero eta ezagunagoa da Martzillako bestetan egiten den aitzur jaurtiketa. Arraiozko Maritorea aita-seeek erakustaldi ederra eskaini dute aurten. Aita, Mariano Maritorea, txapel-dun suertatu zen beternoetan, aitzurra 25 metro eta 65 zentimetrora bota ondotik. Seme gazteena, 15 urteko Xabier Maritorea txapel-dun izan zen 10-16 urte artekoen sailan eta Mikel seme zaharrena, hiru-garren izan zen helduen mailan, 17 urte bertzerik ez baditu ere.

flash

❖ Moldaketak Erratzu eta Gartzaingo eskoletan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak Erratzu eta Gartzaingo eskolatan egin beharreko lanen %65a ordainduko du. Erratzun, patioa moldatu eta aterpe bat egingen da. Lan hauek 6.653.498 pezetako aurrekontua dute. Gartzaingo eskolaren teilatua moldatzea 4.633.443 gostako da.

❖ Zesta-punta Elizondon Noaingo Jai-Alai zesta punta klubak antolatutako Nafarroako Foru Komunitateko bigarren zesta punta sariketako partidak irailaren 8an eta 9an (ortziral eta larunbata) jokatu dira Elizondoko pilotalekuan. Ortzira-lean arratsaldeko 5etan hasiko dira partidak eta larunbatean arratsaldeko 9etan.

❖ Izpegiko V. Moto Igoera Igande honetan, irailak 10, arratsaldeko 4etan hasiko da Katarri Motoklubak 5. aldiz antolatutako Izpegiko Moto Igoera.

Maderas GOMEN

- Era guzietako atea, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mbleak
- Estiloko mbleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

Dantxarinea eta Zugarramurdi lotzen duen errepidea zabalik

Olazelai parean dagoen errotonda ere edeki dute

MARGARI ETA KORO

Aste Sainduan bidea probisionalki edeki bazuten ere, gauza da abuztuaren lehenean inauguratu dela Dantxarinea eta Zugarramurdi lotzen duen karretera. Karretera hilabete hauetan erabiltzen genuen, bainan ez hala Olazelai parean egin duten birigibilgunea edo errotonda, hunen lanak berrikiarte ez baitituzte finitu. Errotonda hau garrantziskoa da berari esker saihesten baita Zugarramurdira sartzeko zegoen bidegurutzekaxkarra.

Lan hauekin Dantxarinea-Zugarramurdiko bideak arrixku andana galtzen ditu, baina erran behar da baita ere, orain Dantxarinea berean gertatzen direla oztopoak: azken hilabete hauetan Frantzia aldeko auto aunitz Dantxarineako gasolindegira etortzen dira eta gasolindegian toki nahiko ez dutenez, karreteran sekulako lerro muntatzen dute, handik pasatzen diren autoak arrixkuan emanez.



Andremari egunean partida jokatu zuten pilotariak (Arretxe-Errandonea, Errasti-Unanue) herriko esku-pilota eta paleta txapelketen finalak jokatu zituztenekin.

Zugarramurdiko Andremariak animazio ederrarekin

Eguraldi dexentearekin eta animazio ederrarekin pastu ditugu Andremariak. Aurten aldaketa garrantzitsua Joko-besta izan zen, azkeneko 7-8 urte hauetan ez baitzen egiten. Gan den urtean moztu gauean talde batek joko hau eskatu zuen eta 2000. urte honetan, hain

xuxen ere gazte horien eskutik, berriz joko dibertigarri hauek ikusteko aukera izan ginuen. Frontoi berria egin zenetik ere pilotak garrantzi handia hartu du, alde batetik herritarren artean egiten diren txapelketatik eta, bertzetik, pilotari onenetakoak ikusten ahal ditugulako. Baina ez da dena ongi ateratzen eta noizpaite hori ere erran beharko ginuke: plater

tiraketa ez zen egin ahal izan; zikiroko makil eta haragiak prestatzera ere jende gutti agertu omen zen; kabezudoak ibili behar zituztenak desagertu ziren; belagiaren faltan futbol partida frontonean egin behar izan zen... bon, hortan utziko dugu, baitakigu ere gehienek posible dutena egiten dutela, eta seguro gainera heldu den urtean gauzak hobeki aterako direla.

Personaiak

Moto istripuan hil zen Luis Bidaurre gaztea

Luis Bidaurre Elizegi, 16 urteko urdazubiarrak, bizia galdu zuen abuztuaren 18ko arratsean, berak gidatzen zuen motok errepidean zegoen zeren baten kontra jotzeko. Luis aski mutil ezaguna zen, Dantxarineako Patxi Bentako Sagrario eta Patxiren semea baitzen. Urdazubitik Dantxarinea gaki zenean izan zuen istripua. Lau anai-arreben artean gazteena, DBHko laugarren maila ikasten zuen Ustarrotzen. Uda aldean, berriz, etxekoan bentan laguntzen zuen. Uste gabeko heriotzak samina sortu zuen Urdazubin eta istripuaren egunean bestetan zegoen Zugarramurdin aski ezaguna baitzen Luis Bidaurre.



Luis Bidaurre

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176

INTERVIDE
Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak

➔ SARA

Ramuntxo Lamothe saratarra nagusitu da Kontrabandisten Lasterkaldian

Sarak irabazi zuen taldeka ere, Beraren aitzinetik

ANA MARI ETA FRED

Ramuntxo Lamothe saratarrak irabazi du aurten 38. aldia betetzen zuen Kontrabandisten Lasterkaldia, ibilaldia 40 minutu eta 31 segunduz burutu ondotik. Agorrilaren 20eko arratsaldea lasterka egiteko eguraldi polita bazegoen ere, Koxe Oronozok orain dela hamabi urte egindako denbora (40'26") Ramuntxo Lamothe ez zuen gainditu 5 segundugatik. Haatik joan den urteko denbora ia sei minutuz hobetu zuen Sarako gazteak, Iñaki Lopetegi iazko irabazleari 4 minutuz gaindituz. Bigarren

postuan Fernando Etxegarai beratarra ailegatu zen, minuta bat 38 segundura eta hirugarren Mixel Larzabal, hiru aldiz garaipena lortu duen saratarra, 2 minutu eta 19 segundura. Zazpi Fagora 26 minutatik behera egin zuen Lamothe, marka berria jarritz. Aipatzekoa da parte hartu zuen emazte bakarra Miren Gomez izan zela. Emakume hau ezaguna da Euskal Telebistako Goenkale telesailan agertzeagatik. 34 lasterkari abiatu ziren, horien artean 7 saratar. Gazteena 18 urteko Gorka Martinez izan zen eta helduena 50 urteko Ramuntxu Laboux.



Ramuntxo Lamothe saratarra eta Fernando Etxegarai beratarra, lehen bi sailkatuak. Beheitan, Lamothe Zazpi Fagora igaiten (marka berria egin zuen hemen) eta Miren Gomez, emakume bakarra.



Erreserbatzeko deitu:

05 59 54 27 77
06 12 53 65 48

MAYIN
ETXEAN

Sarako bestetan
bazkaltzeko edo
afaltzeko manera

Menua:

100 libera edo
2500 pezeta

Igandetik asteazkenera

*Besta on
deneri*



SAIOA
ILEAPAINDEGI

MISTOA
IBARDINen

Benta Biok-en,
Benta Mirentxuren
ondoan

☎ 0034948630424

➔ SARA

Sarako bestak ekitaldiz gainezka izanen dira buruilaren 9tik 13rat

Kasik egunero pilota partidak izanen dira eta igandean herri kirol ikuskizuna

Azi-ilaren bederatzitik besta leku dugu Sara, hamalaeuan, bururatuko, goizeko argi aldera gostu guziak beteko dira usaiako arabera lagun bat hartu eta etorri gomitatua baizira giro goxoan sartuko zira Sararat heldu bazira.

Txomin Ezponda.

Larunbata, buruilak 9
Arratseko 10,30etan kontzertua: Komando Kaltzontzilo eta 100 Grames de Tête taldeak. **11,30etan** dantzaldia EKINTZA taldearekin. Gau guzian hor izanen dira Iparraldeko Gaiteroak: Kanboko Sorginak banda.

Igandea, buruilak 10
10etan Meza Nagusia Urruñarrak klikarekin eta Sarako kantariakin. Ondotik, Itzulin Itzuli Marinelak Tanborradarekin eta Sara, Baigorri eta Iruñako gaiteroekin. **10,30etan** Luzean Errebotean, Villabonako Beharzana, Azkaingo Azkaindarrak Bat taldearen kontra. **4,30etan** karrikan ibilaldia: Agoitzeko Zigan-teak eta joaldunak. Ondotik ahate jokoa eta herri kirol ikuskizuna: Sokatiran, Urruñá Zuraideren kontra. Desafioa lau aizkolarirekin: Senosiain anaiak, Telletxea eta Jaunarenaren kontra. Koxe Bikondoak trunkua xutik moztuko du. Iñaki Perurena harrijasotzaile famatua semearekin arituko da. **7etan** aperitifá Zaldi-biako trikitilarien mus karekin. **10etan** kantaldia: SAIBERRI eta IPARRAGERRE AHIZPAK. **11,30etan** dantzaldia BOLBORA taldearekin. **12etan** Suzko Zezena. Gau guzian Tolosako NEKA EZINAK txaranga hor izanen da.

Astelehena, buruilak 11
Goizean itzulin itzuli Gaitero eta Txistulariekin. **10,30etan** Luzean Errebotean Ustaritz / Aviron Bayonnais. **1,30etan** zikiro jatea Olhain kastolak antolatua, oihal etxeak aterpe-turik. **5,30etan** esku huska trinketean: Manu Martiarena (Frantziako xapeldun buruz buru 2000. urtean) alde batetik eta Xabier Errandonea (Sarako gaztea) eta Ellande Alfaro (1. serieko buruz buruko finalista 2000. urtean). **5,30etan** Zazpiak Bat taldearen dantza kusgarria. **6,30etan** Fandango xapelgoa. Sarako trikitilariak. **8etan** trikitilariakin aperitifá. **10etan** kantaldia: Altzükütarrak. **11,30etan** dantzaldia KUKUMIKU taldearekin.

Asteartea, buruilak 12
Goizean itzulin itzuli Gaitero eta Txistulariekin. **10,30etan** Luzean Errebotean Senpereko SPUC, selekzio baten kontra. **5,30etan** Joko Garbi: Frantziako Koparen finala (Frantziako Pilota Federazioak antolatua). **7etan** Mutxikoak Ezpeletako txarangarekin. **8etan** aperitifá trikitilariakin. **10etan** kantaldia: JOJO eta RAMUNTXO. **11,30etan** dantzaldia TABASCO taldearekin. Ondotik, suzko zezena.

Asteazkena, buruilak 13
Goizean itzulin itzuli Gaitero eta Txistulariekin. **9etan** Trinketeko zabaldeian Sarako Azienda Primak (11.000 libera). **10,30etan** Trinketean, Pleka xoko txapelketa. Lehendabiziko finalerdian, Bideondo / Olasagasti. Bigarren finalerdian: De Ezkurra P./Inda. **12etan** eskuala. **5etan** plazan funa huska: Alfaro-Parachu,



Garai bateko dantzariak, neskak zein mutikoak. Aurten, Zazpiak Bat herriko taldeak ere bere saioa eskainiko du, astelehen arratsaldean. Gaur eguneko taldean, argazkian ageri direnen ilobak izanen dira, seguruenik.

Berasategi-Mariluz C.ren kontra. **6etan** Trinketean esku huska: Muskarditz-Dermít J.C.; Lafitte-Martiarenaren kontra. Trinketean eta Plazan bertsulariak:

Ezponda, Xanpun, Alkat, Amorena eta Josetxo. Ondotik, zozketa eta kantaldia Erramun MARTIKO-RENAREkin. **10etan** dantzaldia PANPI LADUCHE

eta PANTXIKAREkin. **12,30etan** dantzaldia XI-TOAK taldearekin. Suzko zezena. Gau guzian karrikan ibilaldia NEKA EZINAK txarangarekin.

EZKONTZAK

Juan Apeztxea Perurena eta **Maria Apeztxea Lujanbio**, Goizuetakoak, uztailaren 22an.

Manuel Aranburu Otxandorena eta **Catalina Fernandez Regaña**, Leitza eta Iruñekoa, uztailaren 22an.

Buenabemtura Astibia Olano eta **Maria Cristina Otxoa Riezu**, Leitza eta Iruñekoa, ekainaren 10ean.

Eugenio Mutuberria Etxeberria eta **Maite Mindegia Mutuberria**, Zubietakoak, uztailaren 24an.

Manuel Gomez Tena eta **Maria Thais Turner Elizagi**, Orereta eta Bartzelonakoa, Beran, abuztuaren 12an.

Laurent Pouyet eta **Catherine Bourgneuf**, Bordele eta Angelukoa, Saran, agorrilaren 26an.

Esteban Baylon Ugarte eta **Mirian Iturralde Galain**, Elizondo eta Iruritakoa, uztailaren 8an.

Juan Maria Iturburu Etxandi eta **Maria Yolanda Jaurena Jaurena**, Erratzu eta Arizkungoa, uztailaren 15ean.

Francisco Javier Isuskiza Mitxelena eta **Elisabete Aranburu Lertxundi**, Amaiur eta Donostiakoa, uztailaren 22an.

Juan Jose Iturzaeta Barno eta **Laura Martinez de Icaya Zaldua**, Elizondo eta Gasteizkoa, uztailaren 22an.

Ambrosio Maria Elizalde Urtasun eta **Edurne Abad Otxandorena**, Iruñekoak, Lekarozen, abuztuaren 5ean.

Dennis Michael Urrutia Dunavant eta **Erica Margaret Sotelo Lopez**, Kaliforniakoa, Elizondon, abuztuaren 5ean.

Jose Manuel Larralde Zandio eta **Rosa Maria Baldanta Petirena**, Iruña eta Elizondokoa, abuztuaren 19an.

Aitor Otxoteko Telletxea eta **Nekane Retegi Ansalas**, Lesaka eta Etxalarkoa, uztailaren 30ean.

Jorge Aracues Pombar eta **Yolanda Arribillaga Arangoa**, Bera eta Etxalarkoa, abuztuaren 26an.

Danien Mentaberri Bergara eta **Maria Jose Zelaieta Oskoz**, Zugarramurdi eta Igantzikoa, uztailaren 15ean.

JAIOTZAK

Beñat Iantzi Etxarte, Lesakakoa, ekainaren 8an.

Pello Usabiaga Eizmendi, Goizuetakoa, abuztuaren 8an.

Mikel Zabaleta Unanua, Leitzakoa, abuztuaren 11n.

Aroa Zubiri Arburua, Leitzakoa, abuztuaren 8an.

Irati Huarte Sanz, Doneztebekoa, uztailaren 9an.

Joana Gartziaarena Hualde, Doneztebekoa, uztailaren 20an.

Gemma Leitza Iratzoki, Berakoa, uztailaren 22an.

Jone Leitza Iratzoki, Berakoa, uztailaren 22an.

Xumart Biurrarena Bertiz, Berakoa, abuztuaren 10ean.

Oier Mitxelena Arotzena, Berakoa, abuztuaren 10ean.

Irati Fagoaga Eugi, Berakoa, abuztuaren 16an.

Iñaki Vidal, Sarakoa, agorrilaren 8an.

Itsaso Iturregi Zelaieta, Elbeteakoa, uztailaren 5ean.

Irene Mitxelena Lauragarai, Azpilkuetakoa, uztailaren 3an.

Xuban Zaldain Arribillaga, Amaiurkoa, uztailaren 8an.

Olaia Elizalde Garaikoetxea, Elizondokoa, uztailaren 2an.

Jose Angel Gamio Bidegarai, Iruritakoa, uztailaren 15an.

Ane Karrikaburu Rekarte, Arizkungoa, uztailaren 16an.

Naxara Jauntsaras Santxotena, Erratzukoa, uztailaren 21ean.

Ane Karrikaburu Ripa, Iruritakoa, uztailaren 30ean.

Alejandro Agerrea Hualde, Elizondokoa, abuztuaren 1ean.

Jaime Ignacio Egurrola Olabe, Elizondokoa, uztailaren 31n.

Unai Bertiz Gaztelumendi, Elizondokoa, abuztuaren 15ean.

June Apeztegia Etxebeste, Sunbillakoa, abuztuaren 7an.

Maite Sobrino Etulain, abuztuaren 15ean, Arizkun.

Aurkene Perurena Agirre, abuztuaren 12an, Elizondokoa.

Nerea Berho Santos, Oronozkoa, abuztuaren 19an.

Alaitz Nuñez Goñi, Elizondokoa, abuztuaren 22an.

Marina Gonzalez Bayones, Elbetekoa, abuztuaren 24an.

Iñaki Larretxea Olaskoaga, Arantzakoa Hendaian, otsailaren 2an.

Leire Guillén Fernandez Mitxeltorena, Igantzikoa, uztailaren 31n.

HERIOTZAK

Rufina Satrustegi Etxarri, Leitzakoa, abuztuaren 13an, 88 urte.

Angeles Celestina Lazkano Larrea, Leitzakoa, abuztuaren 16an, 93 urte.

Teresa Aleman Txurruka, Berakoa, uztailaren 23an, 67 urte.

Jose Iñarga Hermigarate, Berakoa, abuztuaren 13an, 66 urte.

Agustin Maritxalar Apeztegia, Lesakakoa, abuztuaren 1ean, 84 urte.

Pantzo Zamora, Sarakoa, agorrilaren 12an, 62 urte.

Sophie Pradere, Sarakoa, agorrilaren 19an, 27 urte.

Romualda Arriada Mitxelena, Arizkungoa, uztailaren 13an, 23 urte.

Pedro Jose Bikondo Barrenetxe, uztailaren 14an, Erratzukoa, 83 urte.

Tomas Errotaberea Santxotena, uztailaren 15ean, Arizkungoa, 86 urte.

Clementa Estornes Anaut, uztailaren 17an, Elizondon, 80 urte.

Felix Martinez Laplaza, uztailaren 19an, Elizondon, 77 urte.

Maria Concepcion Ramos Marchante, abuztuaren 3an, Elizondon, 76 urte.

Maria del Carmen Salvador Gallego, abuztuaren 7an, Elizondon, 89 urte.

Antonia Mariñelarena Oiartzun, abuztuaren 9an, Elizondon, 81 urte.

Cristina Zaldain Agerre, abuztuaren 9an, Elizondon, 87 urte.

Maria del Carmen Etxabe Goia, abuztuaren 10ean, Elizondon, 77 urte.

Florentina Iturralde Aleman, Legasakoa, abuztuaren 13an, 90 urte.

Gregorio Etxalar Urdaniz, Zigakoa, abuztuaren 18an, 75 urte.

Maria Cruz Nicolasa Arretxea Aritzia, Gartzaingoa, abuztuaren 19an, 87 urte.

Roman Galarregi Meaka, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 22an, 79 urte.

Maria Prudentzia Huarte Arburua, Etxalarkoa, abuztuaren 6an, 92 urte.

Luis Bidaurre Elizagoien, Urdazubikoa, abuztuaren 18an, 16 urte.

Felicia Matxikote Lizardi, Igantzikoa, abuztuaren 8an, 88 urte.


Pilota talde gehienak Nafarroako Federazioarekin haserre

- Federazioa bizpahiru talde handiren menpe egotea salatu dute
- Lehendakaritzarako bertze zerrenda bat aurkeztuko dute

AITOR AROTZENA

Nafarroako pilota eskola, talde eta elkarte gehienak ez daude sobera kontent Nafarroako Federazioarekin. Ez da oraingo kontua, baina haserre hori Nafarroako Pilota Federazioaren biltzarreko hauteskunderen nabarmendu da aurretan. Lau pilotazalek egindako salaketaren ondorioz, hauteskunde prozesua bertan behera gelditu da. Nafarroako pilota talde gehienek lau pilotazale hauekin bat egin dute eta seguruenik, irailaren lehen egitekoa zuten bileraren ondotik, lehendakaritzarako zerrenda aurkeztuko dute. Biltzarreko konpromisarioen kopurua banatzeko moduak Federazioa hiruzpalau talde handiren esku uzten du, gainerakoak baztertuz.

Baztan eta Malerreka pilotariak biltzen dituen Txaruta elkarteak Juanjo Atxak dioenez, «hamasei urtez goitiko 25 fitxengatik ordezkari bat izaten da biltzarrean. Honela,



Juanjo Atxa, Txaruta elkarteak ordezkariaren erranetan, Nafarroako Pilota Federazioarekin hauteskunde garbiak nahi dituzte. Arg.: Karmele

adin ttikiko pilotariekin lan egiten dugunok Federaziotik baztertuak gaude. Gure kasuan, hamasei urte bitarteko 250 pilotari ditugu eta hamasei goitikoak 15 bat bertzerik ez. Hori gutti balitz, talde handienek beraien fitxa ko-

purua hazi egiten dute. Guk urtero-urtero altak eta bajak ematen ditugu. Hauek, berriz, 60 urtetik goitikoak eta hildakoak ere izanen dituzte oraindik baja eman gabeak. Nafarroan bi taldek bertze talde guzietan baino botu kopuru

gehiago zuten Federazioan. Hori ez da ego-kia».

Botere banaketa orokatuaren aldeko apustua egin dute talde ttikiek eta hauteskunde araudia aldatzeko proposamena eginen diote talde handien menpe dagoen Federazioari. «Hauteskunde prozesua demokratikoa eta garbia izatea nahi dugu. Ez dugu erraten talde guzietan ordezkari berdina izatea: talde batek 400 pilotari baditu eta bertzeak 50, normala da Federazioan ere ordezkari gehiago izatea, baina ez hogeitaz ordezkari eta bertzeak bat, orain gertatzen den bezala» dio Juanjo Atxak eta eskualdeko pilota talde gehienek bat egin dute eskari honekin.

Urriko Munduko txapelketaren ondotik, azaroan eta abenduan eginen dira Nafarroako Federazioko hauteskundeak. «Taldea guzietan Federazioan erreprezentazioa izatea bertzerik ez dugu nahi, ordezkari bat bederen» dio Txarutako ordezkariak.



❖ Mitxel Aginaga NARBARTeko Mitxel Aginaga kirolaria bigarren izan da Gaztelako Kanala Mendiko Duetloiko txapelketan. Hiru proba izan ditu txapelketa honetan eta lehendabizikoan Aginaga garaile izan bazen ere, bertze bietan bigarren izan da. Jose Abundio Salamanca puntu bat gehiago eskuratu du, Valladolideko Medina de Riosecon egindako azken proban gailendu ondotik.

❖ Nafarroako aizkolari txapelketa Floren Nazabal (13'52"), Mikel Mindegia (14'43"), Felix Etxeberria (15'45"), Donato Larretxea (15'53") eta Antonio Senosian (16'07") ariko dira Nafarroako aizkolari txapelketaren finalean. Lakuntzan egindako kanporaketa saioan lortu zuten txartela, bi kanerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu ondotik. Barberena (5 segunduz gertatzen) eta Lopez finalistik kanpo gelditu dira.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.
 24 orduko zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
 edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

ARIZKUNGO GAZTEEN PARTETIK
ROMI ARRIADA MITXELENARI
 Gazteen artean mugitu zara
 zintzotasunaren balorez
 zure hutsunea nola estali
 arantzik gabeko lorez?
 gure ingurua ez da beteko
 ez lanbroaren kolorez!
 zu oroitzeaz eguzki izpia
 ekarriko daku ordez!
 Arizkun, 2000-07-13

ARGIBEL
 OPTIKA
 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO

 Aukera zabala
 ➤ Anteojoak
 ➤ Lentillak
 ➤ Audifonoak

DATUAK.....

1 Jexux Retegi Deskarga Eratsungo aurrelariak uztailaren 29an Isaban egin du debuta profesionaletan Asegarce enpresarekin. Tabernarekin batera, 13-22 galdu zuen Arbizu eta Pinedoren aurka.

2 1977ko otsailaren 28an sortua, profesional izan baino lehen Txaruta eta Oberena elkarteetan aritu da. Retegi IIren lehengusu propioa da.

3 Julianekin entrenatu du azken bi urteetan eta pozik ikusi du bera kantxetara itzultzen. «Lehengo kolpea ez du, baina nik uste punta-puntan ibiliko dela».

TESTUA:
AITOR AROTZENA
ARGAZKIA:
OSKAR TXOPERENA

✍ Jexux RETEGI *Eratsungo pilotaria*

"Julianen ondoan beti ikasten da eta ez dut konparazioen beldurrik"

Ez da bere lehengusua Julian bezain famatua, noski, baina Jexux Retegi –Retegi VI– ez da bapatean sortutako pilotaria. 23 urte beteak ditu eta afizionatutan, klub arteko Espainiako txapeldun izan zen 1996an Oberean (Zilbeti lagun zuela), 22 urtez beheitiko Nafarroako txapeldun 1997an (Zilbetirekin) eta 22 urtez beheitiko Nafarroako txapeldun bakarka 1998an. Azken bi urteetan, Julian Retegiren lesioa dela eta arrot partidu gutxi jokatu ditu Jexuxek, gehien bat berekin entrenatzen aritu baita. «*Bi txapelketa besterik ez ditut jokatu*». Retegi II berak animatu zuen profesionaletara salto egiteko, beraz, ez du nolana hiko atautxia. «*Entrenamenduetan ongi moldatzen naizela ikusi zuen. 23 urte badituz eta oraintxe izaten ahal zen azken aukera eta aprobetxatu egin nahi dut. Adin polita dela uste dut*».

«JULIANEN LEHENGUSUA
IZATEAK EZ NAU
BELDURTZEN»

Retegi izena eramatea, orde, zama astuna izaten ahal da pilota munduan, baina Jexuxek ez du horren beldurrik. «*Julianen lehengu-*



«Defenditzen ikasi beharra dut, hortan arrazoia du Julianek».

sua izatea mesederako besterik ez da, bere ondoan beti ikasten baita. Beste aldetik, jendeak gehiago begiratuko du, baina ez dut konparazioen beldurrik, bakoitzak bere bidea egin behar baitu». Lehen partidua galdu bazuen ere, pare bat egin ditu segidan irabaziz eta kate-

► «Urte honetan hobetuz joan nahi dut, erregulartasun bat hartu eta pixkanaka gora joan. Heldu den urtean kontratua berritzeko merituak egin nahi dituz»

goria berrira moldatzen ari da pixkanaka. «*Nabaritzen da saltoa: pilota belozidade gehiagorekin mugitzen da eta zailagoa da tantoa sartzeari, baina gero eta hobekiago ikusten dut neure burua*». Urtebeteko kontratua sinatu du Asegarcerekin eta bere helburuak garbi ditu: «*hobetuz joan, erregulartasun bat hartu eta ikusi hor mantentzen naizen, pixkanaka gora joanez. Heldu den urtean kontratua berritzeko merituak egin nahi dituz*».

Julian Retegiren us-

tez, Jexux pilotari nahiko konpletoa da, baina urduri xamarra eta defentsan hobetu behar duena. Retegi VI ados dago lehengusua jarritako ezaugarriekin. «*Bi esku nahiko politak dituz eta eskuinarekin kolpe dextentea dut. Tantoa bukatzen ere nahiko ongi moldatzen naiz, baina hobetu beharra dut. Defenditzen ere ikasi beharra dut, hortan arrazoia du Julianek. Gainera orain pilotak nahiko fuerte etortzen dira eta zaila da ongi defenditzea*».

Doneztebeko lehen taldeak berreskuratu du laxoa txapelketako nagusitasuna

- Abuztuaren 7an jokaturako final borrokatuan 9-8 irabazi zion Arraiozeri
- Iruritik hirugarren postua erdietsi zuen Doneztebe D bi jokuetan utzita

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako laxoa txapelketan, joan den urteko finalaren errepikapena jokatu zen abuztuaren 6an Doneztebeko Bear-Zana pilotaplan, Doneztebeko talde nagusiak eta Arraiozek jokoan baitzuten txapela. Iaz, Arraiozen bertan jokatu zen finala eta herrikoek 9 eta 8 irabazi zuten, 8 eta 6 galtzen joan ondotik. Aurten, ordea, azken jokua doneztebarren alde erori zen eta *beraien* txapela berreskuratu zuten –1994. urtetik joan den urtean bakarrik ez zuten irabazi–. Honekin, hamahirugarren txapela da Doneztebekoentzat.

Bi taldeek beraien laukote onenak plaza-ratu zituzten. Donezteben, Mariezkurrenak sakatu zuen, Iribarren numeroa eta Ganboa eta Apezetxea laurdenekin batera. Arraioztarrekin Saldias sakalaria, Mortalena numeroa eta Karrikaburu eta Gamio laurdenak aritu ziren. Baztandarrak aitzindu ziren markagailuan, baina oreka mantendu zen partida osoan, sei berdinketa izan baitziren markagailuan. 1-0, 1-1, 2-1, 3-1, 3-2, 3-3, 3-4, 4-4, 4-5, 5-5, 5-6, 5-7, 6-7, 7-7, 8-7, 8-8 eta 8-9. Azken tantua sakez lortu zuen Javier Mariezkurrenak. Ezin erran partidua sobera ona zenik, bi taldeak urduri xamar aritu baitziren eta normalean baino huts gehiago egin zituzten.



Luismi Apezetxea, Patxiku Ganboa, Javier Mariezkurrena eta Peio Iribarrenek txapel berri bat eskuratu dute Donezteberentzat. Foto Zaldia

Luismi Mortalena izan zen zortzi pilotarien artean hobekien aritu zena.

HERRI BAKOITZEKO
EPAILEA BANA

Epaile lanean, aurtengo txapelketan partehartu duten herri guzietako ordezkari bana aritu zen: Angel Bergara (Arraioz), Juan Mari Artazkoz (Doneztebe), Mikel Ballarena (Elizondo), Txuma Prim (Iurrita) eta Joaquin Ilarregi (Oitz).

Hirugarren eta laugarren posturako lehiak Iurrita Bk 9 eta 2 iraba-

zi zion Doneztebe Dri. Iruritarekin Azkarate, Urtasun, Prim eta Ripa aritu ziren eta Donezteberekin Rekarte, Juarena, Artazkoz eta Arraztoa.

Finala ikusten eta sari banaketan pilotazale elkarte ezberdinetako kideak ageri ziren. Nazioarteko Federazioko Josetxo Iraundegi, Pilotarien Batzarreko Juan Mari Olano eta Mikel Amenabar eta Euskal Federazioko Pello Urtasun Doneztebera hurbildu ziren. Ez, ordea, Nafarroako Federazioordezkaririk.



- ❖ Etxalarko Usategietako Auto Igoera Lagun Artea esku-deriako Jose Karrera gidari bizkaitarrak irabazi zuen abuztuaren 20an Etxalarren egindako Usategietako III. Auto Igoera. Karrerak Renault 21 Quadra bat gidatu zuen eta Mitsubishi guziei gaildendu zitzairen. Bigarren postua San Fermin eskuderiako Bernardo Zozia gidariarentzat izan zen eta hirugarrena Lagun Arteako Israel de Pedrok. Eguzki Sport taldeko Joseba Beola etxalartarra garaile izan zen 2. mailan eta juniorren artean.
- ❖ Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa Arazurin Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa jokatu zen abuztuaren 26an. Olagueko Aitor Senosiain suertatu zen irabazle, Beintza-Labaiengo Javier Mindegia izan zen bigarren eta Etxarri Aranatzko Mikel Erdozia hirugarren, Joxe Mari Mikelarena iturendarra laugarren, Lakuntzako Miguel Angel Albisu bosgarren eta Leitzako Santiago Olano seigarren.

TXAPELDUNAK

1980.....	IRURITA
1981.....	DONEZTEBE
1982.....	DONEZTEBE
1983.....	OITZ
1984.....	OITZ
1985.....	DONEZTEBE
1986.....	DONEZTEBE
1987.....	DONEZTEBE
1988.....	OITZ
1989.....	DONEZTEBE
1990.....	OITZ
1991.....	IRURITA
1992.....	DONEZTEBE
1993.....	IRURITA
1994.....	DONEZTEBE
1995.....	DONEZTEBE
1996.....	DONEZTEBE
1997.....	DONEZTEBE
1998.....	DONEZTEBE
1999.....	ARRAIOZ
2000.....	DONEZTEBE

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ERATSUN

► Irailaren 8tik 11ra
Irailaren 8tik 11ra

SARA

► Irailaren 9tik 13ra
25. orrialdean

OITZ

► Irailaren 7tik 11ra
16. orrialdean.

ILLEKUETA

► Irailaren 16 eta
17an

ELBETE

► Irailaren 14tik
17ra 21. orrialdean.

ZINEA

DONEZTEBE

► Irailaren 5, 6, 7
eta 8an
Doneztebeko zineman,
arratsaldeko 19,30etatik
aitzinerara, Bidasoako
3. Zinemaldian parte
hartuko duten filme la-
burrak eskainiko dira.

BERA

► Irailaren 11, 12,
13 eta 14an
Kultur Etxean, arratsal-
deko 19,30etatik aitzin-
nera, Bidasoako 3.
Zinemaldian parte har-
tuko duten filme labu-
rrak.

KIROLA

IGANTZI

► Irailaren 10ean
Igantziko X. Mendi
Bizikleta Ibilaldia.
Goizeko 10,30etan.

ERRATZU

► Irailaren 10ean
V. Izpegiko Moto
Igoera. Arratsaldeko
4etatik aitzinerara.
Katarri Motoklubak an-
tolatuta.

TELEBISTAKO TXOKOA



Lesakako Sanferminak BIDEAN

Aurtengo bestetako irudirik hoberenak etxean eduki nahi dituzu?

Uda akautzen ari den honetan, herriko bestetako zenbait momenturekin oroitzen garelarik irria heldu zaigu oraindik ahora. Denborarekin, hala ere, xehetasun batzuk ahan-tzi eta oroitzapenak hoztu egiten dira. Horietako batzuk bederen bero-bero gordetzeko, bestetako momentu alaie-nak betirako etxean altxatzeko, hona he-men TTIPI-TTAPA TELEBISTAK prestatu di-tuen bideoak.

Bera eta Lesakako bestetan hartutako irudi hoberenen bil-duma hauek 2.000 pezetaren truke esku-ratzen ahal dituzu da-goeneko zure herri-ko dendetan. Lesa-kan Legarran eta Telletxean daude sal-gai, eta Beran Ayla, Goiko eta Etxegarai bideoklubean.



BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 179 pta./ki-
loa.
- **Zerramak**: 100-105 pta./kiloa,
bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa480
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra570
1.koa550
2.koa520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg.
kanalean dauzkaten idixko eta 200-
250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 10.000 eta idix-
koak 26.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 28.000 eta idix-
koak 42.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg.
Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg.
Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

👉 Liburuak



«Hezur gabeko hilak»

XABIER MONTOIA

SUSA

Jean Etxegoien senpertarra eta David Mandel errusiarra frantse-sen erreximenduan ari dira ale-maniarren kontra borrokan. Le-hendabiziko mundu gerraren bihotzean kokatu du bere azken eleberria Xabier Montoia musika-ri eta idazleak, indar aliatuak alemaniarren kontrako Oldar Handia egiteko puntuan zeude-larik, justuki. Bainan frantsesen desesperaziorako Oldar Handi hori hutsean gelditzen da eta hi-

labete osoak ematen dituzte lu-bakietako lohi eta arratoi arte-an, etsai alemaniarrek parez pa-re dituztela. Hamar miloi gizon-emazte hil zituen gerra haren krudeltasuna, gordintasuna eta batez ere zentzugabekeria age-rian gelditzen da liburu honeta-ko pasarte eta elkarrizketa ba-koitzean. Frantses pizarrik jakin ez arren Ama Frantzia defendatu behar izan zutenen destinu makurra ere islatzen da.

Depresioa

Gehienok oporren ametsetik ernatu beharrean gauden honetan ez da gai txarra Rakel Amigo psikologoak mahai gainera ekarri duen hau.

Lur-jotze eta kulpa sentimendua elkartzen dituen emozio-egoera da depresioa. Sufritzen duenak bakardadea, motibazio falta edo nekea sentitzen du batez ere. Pertsona hori zoritxarreko, umiliatu, baztertu, zigortu edo frustatu sentitzea ohikoa da aldi berean.

Hiru sentimendu nagusitzen dira euren buruaz:

- Norberari buruzko iritzi txarra; pertsona deprimituak ezgai ikusten du bere burua, tokiz kanpo. Beren burua baztertu ohi dute bertzeek baztertzeko beldurra dutelako.

- Munduari buruzko iritzi txarra; sozialki suntsituta sentitzen da, eta beren bizitzako helburuetan jartzen dizkion oztopoengatik munduak sobera esigitzen diela uste dute.

- Etorkizunari buruzko iritzi txarra; geroa ikuspuntu ezkor batetik begiratzen du eta gauza guzieren alde txarra ikusten du soilik. Arazoak betirako izanen direla uste du eta gainera larriagoak ere etorri-



Norberaren kabuz depresiotik ateratzea arront zaila da.

Ez da egia bere kabuz depresiotik ateratzen ez dena nahi ez duelako edo saiatzen ez delako denik.

ko direla denborarekin.

Bertzetik, beren esperientziak eraldatzeko joera dute pertsona deprimituek, garrantzirik gabeko gertaerak porrot edo bazterketa seinale gisa hartzen dituzte.

Gainera, bere gisa egoera horretatik ateratzea arront zaila egiten zaie, ez baitu indarrik esfortzu hori egiteko. Ez da egia bere kabuz depresiotik ateratzen ez dena nahi ez

duelako denik edo saiatzen ez delako. Beraz, ahalik eta laguntza handiena eman behar zaio biziaren alde positiboak ikus ditzan, eta horretarako, noski, bakarkako terapia behar da.

Eguneroko gertakizunen interpretazioa aldatzen duen pertsonaren egoerak hobera egiten du pixkanaka. Bizia ikuspuntu positiboago batetik hartzen duenari, bere jarraera aldatu egiten da, bai bere buruarekiko bai inguruan dituenekiko ere.

RAKEL AMIGO
BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

OIARTZUN

► Irailaren 10ean Supersuckers eta Reverend Horton Heat. 21,30etan, Pagoan.

ARGAZKILARITZA

ELGORRIAGA

► Irailaren 10ean Onddoaren Kofradiak antolatutako 2. argazki rallya. Goizeko 9etatik aitzinera.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► Irailaren 1etik 13ra arte Bideari So izeneko margo erakusketa Arizkunenea kultur etxean. Nafarroa, Aragoi eta Errioxako 26 margolarik Santiagoko Bideari buruzko ikuspegi agertuko dute. Astegunez, arratsaldeko 5etatik 9etara.

BERA


► Irailaren 17a arte Bidasoako Zinemaldia- ren barrenean, "Zinea Bidasoa Bazterrean: 1900-2000" izeneko erakusketa egonen da ikusga Kultur Etxean, goiz eta arratsaldez.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfнора. deitu behar da

► Irailaren 4tik 10era Bera, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
► Irailaren 11tik 17ra Igantzi, Ituren, Iurita eta Goizueta.
► Irailaren 4tik 10era Arantza, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

DISKAK



«Amodio domestikoa»

MORAU

GAZTELUPEKO HOTSAK

Bigarren disko luzea da aurtan Morauk karrikaratu duena. Bakarlari honek gitarraren laguntzarekin hasi zuen bidea baina pixkan-pixkan lagun gehiago bildu ditu bere inguruan eta diskoa grabatzeko orduan hainbat kolaboratzailearen laguntza ere izandu du, hoietakoa aunitz beratarrak. Izan ere, disko honen grabaketa Maikerek egin du Berako Aduanan, eta MER estudioan nahastu zuten joan

den apirilean. Horrez gain, Joseba Irazoki, Petti eta Beñardo Goietzek gitarrak sartu dituzte diskoko hainbat abestietan, eta Raul Garziak armonika. Beñardo Goietzek, gainera, zuzeneko kontzertuetan ere gitarra jo eta koroak egiten ditu aspaldi honetan. Bizpahiru bertso kenduta gainerako abesti guzietan Moraurengan ohikoak diren letra zorrotzak aurki daitezke.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak

- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Bizitzen jartzeko prest daude.

☎ 948 451 841
607 978 656

BULDAIN

Pisuak, bajeak, lur-eremuak etab. salgai.

Informazioa Amazabal 37an,
larunbatetan 10etatik 14ak arte.
☎ 649 476 615 • 948 510 167
goizetan deitu

BULDAIN

Amazabalen pisua salgai. 3 logela, bainua, sukalde, komedorea eta trasteroa.
12.500.000 pta.

☎ 649 476 615 • 948 510 167
goizetan deitu

BULDAIN

Leitzan garajeak eta garaje plazak salgai Manuel Lasarte kalean.

☎ 649 476 615 • 948 510 167
goizetan deitu

DONAMARIA. Baserría salgai, 3 plantakoa eta 1.000 m²ko lur-eremuarekin. ☎ 948 450 948.

DONEZTEBE. Plsua salgai Ameztia karrikan. ☎ 948 450 455.

LESAKA. Pisu salgai Bittiria karr kako 32.ean. ☎ 948 637 982.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

IRUÑEA. Pisu errentan emateko Mendebaldeko auzoan, irailt k aitzinera. ☎ 948 637 769 (9etat k aitzinera).

BERA. Pisu moblezatua errentan emateko Altzate karrikan. Kalefakzioa. Bajera, entreplantarekin. 52 m², komuna, ura, argia. ☎ 948 630 217.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Bi neska behar dira Iruñean Golem zineen ondoan dagoen pisu bat osatzeko (gela indibidualak). ☎ 948 580 724.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. 155 m²ko pabiloia errentan emateko. ☎ 948 630 421.

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira: 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

LESAKA. Labekoak gozotegia traspasatzen da. ☎ 948 637256.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

arantza
ZurginDegia
Jose Miguel Errandorea
Klase guztietako
zurgin lanak
Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

301 ESKAINTZAK

Ostatu baterako **zerbitzaria** behar da Beran. ☎ 666 079 141.

Urdazubiko jatetxe batean **neska bat** behar da goi-

zoko 9etat k arratsaldeko 5etara lan egiteko. ☎ 948 599 222.

Neska bat behar da etxe-ko lanak egiteko Donostiako Alde Zaharrean. ☎ 943 421 835.

Saxofoi irakaslea behar da Baztan musika eskolan. Informazioa: ☎ 629 283 216 (arratsaldetan).

*Kiloak soberan?
Diru estra behar duzu?*
Lan egin dezagun elkarrekin, egun osoan edo orduka. Nazioarteko enpresa.
☎ 943 635 173 - 629 373 364

*Elektrizista
laguntzailea
behar da*
☎ 666 730 624

☎ 948 13 11 36
LODITASUNA?
96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez eginen da.

LANA

302 ESKARIAK

Itzulpenak egiten dira. Gaztelera-euskara, euskara-gaztelera, frantsesa-euskara, frantsesa-ingelesa... ☎ 948 631 507 (Elena).

EGA ateri nahi baduzu dei nazazu. ☎ 948 631 507 (Elena).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Honda CR-250 salgai. 95koa, egoera onean. ☎ 948 450 981.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Astra GSI, C-15 D, Corsa D, Kadett GSI, Golf TD, Peugeot 306 gasolina
SUZUKIAK ETA VITARRAK AUKERAN

GANIX Tailerrak
Iturilandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

8 urteko **Husky** opari ematen nuke. Marroia da, begi urdinekin. ☎ 948 615 064.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Zakurkumeak salgai. Boxer arrazakoak. ☎ 948 631 228.

Setter zakurkumeak salgai, oilagor ehiztari amorratuak. Garantia eta pedi-greearekin. ☎ 948 610716.

Basset Hound arrazako **zakurkumeak** salgai, txertatuak eta desparasituak. ☎ 606 094 024.

Boxer arrazako **zakurkumeak** salgai. Hilabete terdikoak. 35.000 pta. ☎ 943 671 873 edo 943 683 056.

DENETARIK

703 GALDU-AURKITUAK

Berako Matzada futbol zelaiaren Bart Simpsonen **giltzaria** harrapatu da. ☎ 948 631 188.

Berako mendi batean **be-taurreko graduatuak** galdu dira. ☎ 948 630 532 (Inma).

DENETARIK


702 SALEROSKETAK

Arantza rock jaialdian 7 giltzako **giltzaria** aurkitu da. ☎ 948 631 188.

Roland EM-20 **teklatua** salgai. 4 hilabete, hagitz gutti erabilia. 50.000 pta. ☎ 948 630 121 (Javier).

Lekarozko etxe batean **2. eskuko teila** behar da. Norbaitek baldin badu deitu. ☎ 677 529 458.

BADUGU GABONETAKO LOTERIA



Erosi Gabonetako Loteria, dirua aitzindu gabe

E ATU
E UB R IAK
N A

Nahi den zenbakia • Nahi den kopurua • Partizipazioak (boletuak) ere

Eguberrietako opariak

- Kalendarioak:
 - Sakelekoak
 - Paretan jartzekoak
- Enpresako opariak:
 - Serigrafian egindako materialak: metxeroak, boligrafoak, kamisetak...
 - Gabonetako loteak

Informazioa:

☎ 948 63 11 88

E-Posta: kulturkari@euskalnet.net

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA • NAFARROA



KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Seberiana Fagoaga zubieta-
rrak abuztuaren
25ean urteak bete-
ko ditu. Zorionak
zure biloba Fran-
cisco, Esther eta
Unaiaren partetik.



Jasone eta Goizeder Mindegia
Benito eratsundarek abuztuaren 4 eta
21ean bete dituzte urte bat eta hiru
urte. Zorionak eta muxu bana guraso eta
Ituren eta Eratsungo familia guziaren
partetik.



Mikel Agerre
Iparragirre
igantziarrak 4 urte
eginen ditu
abuztuaren 9an.
Zorionak
familiararen partetik.



Vanessa lesaka-
rrak 4 urte bete
ditu abuztuaren
8an. Aunitz urtez
eta muxu handi bat
aita, ama, Andi,
amatxi, aitaitxi eta
amonaren partetik.



Maialen Mutu-
berria Ituru-
rralde iturenda-
rrak 5 urte bete
ditu uztailearen 28-
an. Zorionak atau-
txi-amautxi eta osa-
ba-izeben partetik.



Ainhoitu
Lantx Ortego
beratarra. Ea noiz
egiten dituzun tren-
za hoiek. Zorionak
zure xakur polit eta
xarmangarriaren
partetik. Laki, aum!



Jokin Bengo-
etxea Olae-
txea lesakarrak
abuztuaren 20an 6
urte beteko ditu.
Zorionak beltzito!
Muxu handi bat
familiararen partetik.




Malaqako Tania
Pardalek
abuztuaren 4an 13
urte beteko ditu.
Zorionak eta muxu
aunitz Lesakakoen
partetik.



Itsaso Perez
Loperena
lesakarrak 4 urte
beteko ditu
abuztuaren 15ean.
Zorionak familia
guziaren partetik.



Pakea Oiartzabal eta Joxelu
Loiarte irailaren 30a itxantian duzue.
Egun zoragarria bat pasa ezazue eta mila
zorion! English camps.



Juan Luis
Olhagarai
Arriadak 9 urte
bete ditu
abuztuaren 4an.
Zorionak familia
guziaren partetik.
Muxu handi bat.



Naroa Etxarre
Etxenike
Lesakarrak 3 urte
bete ditu
abuztuaren 18an.
Zorionak familia
guziaren partetik.



Markel
Iturria Razkin
Etxalartarrak urte
beteko du
abuztuaren 22an.
Zorionak eta
muxu aita, ama eta
Oierren partetik.



Migeltxo
doneztebarrak
abuztuaren 8an
bete zituen urteak.
Zorionak
Amaiaren partetik.
Gogoratu nere
oporetaz !



Migeltxo
doneztebarrak
abuztuaren 8an
bete zituen urteak.
Zorionak osaba
martxosoari, zure
gonbidapena
espero dut. Miren.



Luis
doneztebarrak
abuztuaren 6an 17
urte bete zituen.
Zorionak eta
besarada bat
dakizun neska-
ren partetik.



Jone Urriza
Otxoteko
lesakarrak 3 urte
beteko ditu
abuztuaren 26an.
Zorionak
sorgintxo !



Ibai Juanena
urrozarrak 6 urte
beteko ditu
abuztuaren 21ean.
Zorionak
familiararen partetik.



Imanol
Juanena
urrozarrak 8 urte
beteko ditu
irailaren 13an.
Zorionak
familiararen partetik.



Inaki Trantxo
Azkarate
elizondarrak
abuztuaren 10ean
urtea beteko du.
Zorionak eta
muxu handi bat
familiararen partetik.



Samain
Alvarez Goñi
labaindarrak 8 urte
bete ditu iraila-
ren 2an. Zorionak
familiararen partetik.
Muxu bat. Ongi
pasatu.



Leire Ertivi
Hernandez
donostiarrak 6 urte
bete ditu irailaren
1ean. Zorionak
guraso, osaba,
izeba, aitaitxi eta
amatxiren partetik.



Inigo Arana
beratarrak iraila-
ren 12an 9 urte
beteko ditu.
Aunitz urtez
Mikelen partetik.



Ibon Leiza
Garrido donez-
tebarrak 5 urte
bete zituen
abuztuaren 18an.
Zorionak eta
muxu bat
familiararen partetik.



David Suarez
del Moral 2
urte bete ditu
abuztuaren 31n.
Zorionak eta
muxu handi bat
familia guziaren
partetik.



Josune eta Javier Gago Balda
doneztebarrak 7 eta 9 urte bete dituzte
irailaren 3an eta abuztuaren 30ean.
Zorionak eta muxu handi bat ama eta
aitaren partetik.



Itsasne Eiza-
girre Zubieta
irundarrak 6 urte
beteko ditu iraila-
ren 8an. Zorionak
familiararen partetik.
Muxu handi bat
<Sorgina>.



Ritxi-Mila eta Marta-Matias bikoteak, irailaren 2an eta 16an espotuko dira. Zorionak zuen koadrilaren partetik.



Itsaso Alcalde
Etxepare lesa-
karrak 8 urte be-
teko ditu irailaren
18an. Zorionak eta
muxu handi bat
aita, ama eta
Ibairren partetik.



Jon Iparragi-
rre Olasagasti
etxalartarrak 2
urte beteko ditu
irailaren 1ean.
Zorionak atxa, ama
eta aunitz
partetik.



Nerea Begino
Mendiburu
igantziarrak 3 urte
bete ditu irailaren
2an. Zorionak eta
muxu handi bat
familiararen partetik.



Mikel Begino
Irigoi
igantziarrak 5 urte
bete ditu irailaren
5ean. Zorionak eta
muxu handi bat
familiararen partetik.



Iزارo Ubiria
Rodriguez
irundarrak 5 urte
beteko ditu iraila-
ren 14an. Zorionak
Asier, Amaia,
Ubediren partetik.
Muxu handi bat.



Pello
Telletxea
Igoa lesakarrak
irailaren 1ean 2
urte bete ditu.
Zorionak bere
familiararen partetik.



Maite
Aiestaran
Otxoteko
lesakarrak
abuztuaren 26an
beteko ditu 6 urte.
Zorionak
familiararen partetik.



Ander Maia
lesakarrak irailaren
3an urteak bete
ditu. Aunitz urtez
familiararen partetik.



Itziar eta
Ainara donezte-
barrek irailaren
9an 6 eta 18 urte
beteko dituzte.
Aunitz urtez
familiararen partetik.
Ondo pasa!



Luixa Mujika
elizondarrak 7 urte
beteko ditu
irailaren 4an.
Zorionak Luixa!



Inaki Kastillo
beratarrak
irailaren 14an 41
urte beteko ditu.
Zorionak Patxi,
Mikel eta
Gurutzeren
partetik.



Jon eta Nerea ttipi-ttaperok urteak
bete dituzte irailaren hasieran.
Zorionak eta aunitz urtez lanean ari
garenen partetik.



**Norbait zoriondu nahi
baduzu bidali bere
argazkia, testua eta 35
pezetako 15 seilo
TTPI-TTAPako helbidera.**

ORDOKI

armairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: **948 637 780**

LESAKA



eskaintza
berezia



**LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,
KUTXAK, BESAUAKIAK...**

40tik1

berrogeitik bat

Bai, berrogei ordutik bat baino ez duzu
behar zure euskara hobetzeko

Udal Euskara Zerbitzuak:
Baztan, Bortziriak,
Malerreka eta Leitzaldea



Nafarroako
Gobernua



Kanape tolesgarria
eta 135eko koltzoia:
80.100 pta
Koltzoi azala opari



Kajoidun kanapea eta
135eko koltzoia:
96.300 pta
Koltzoi azala opari



4.000m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko
Larunbat arratsaldetan irekia



Sarrera BERATIK da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

